



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 13a

85. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Datu orokorrak (3. or.).
- III.** Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (5. or.).

IV. Iritzia (7. or.).

IV.1. Finantza-auditoriari buruzko iritzia (8. or.).

IV.2. Legezotasuna betetzeari buruzko iritzia (8. or.).

IV.3. Ekonomia eta finantza-egoera bateratua (8. or.).

V. Finantzetako egoera-orriak (11. or.).

V.1. Baztango Udala (11. or.).

V.2. Udal Ikastola (14. or.).

V.3. Francisco Joaquin de Iriarte zahar eta jubilatuen etxea (17. or.).

V.4. "Giltxaurdi, S.L." sozietatea (19. or.).

VI. Ondorioak eta gomendioak (21. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (21. or.).

VI.2. Udala (22. or.).

VI.3. Udal Ikastola (29. or.).

VI.4. Francisco Joaquin de Iriarte zahar eta jubilatuen etxea (30. or.).

VI.5. "Giltxaurdi, S.L." sozietatea (35. or.).

VI.6. Aroztegia Plana (36. or.).

Behin-behineko txostenari eginiko alegazioak (38. or.).

Kontuen Ganberaren erantzuna, behin behineko txostenari aurkezturiko alegazioei (46. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontuen Ganberak Baztango Udalaren 2014ko finantza-jardueraren erregulartasunaren fiskalizazioa egin du.

Kontuen Ganberak 2015. urterako onetsi zuen urteko fiskalizazio-programan sartu zen lan hau, eta auditoriako hiru teknikariek eta auditore batek eraturako lantalde batek egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridikoen, informatikakoen eta administrazioakoen laguntzarekin. Zehazki, landa-lana 2015eko abendu eta 2016ko otsail artean egin zuten.

Txostenak sei atal ditu, barnean hartuta sarrera hau. Bigarrenean, Udalaren antolakuntza-egitura deskribatzen dugu. Hirugarrenean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa erakusten ditugu, eta laugarrenean, 2014ko ekitaldiko kontu orokorrari buruzko iritzia, legezotasuna betetzeari buruzkoa, egoera ekonomiko bateratuari buruzkoa, eta aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioak betetzeari buruzkoa. Bosgarren atalean, Udalaren eta haren mendeko erakundearen kontabilitateko egoera-orriak ageri dira. Azkenik, seigarren atalean, fiskalizazioaren ondorio esanguratsu eta nabarmenenak, eta kudeaketa hobetzeko egoki jotzen ditugun gomendioak jaso ditugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udal langileei, Udalaren erakunde autonomoetakoiei eta sozietate publikokoei, lan hau egin ahal izateko eman diguten laguntzarengatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan jasota dagoenaren arabera, lan honen emaitzak Baztango alkateari eta 2015eko ekaina bitartean alkate izan zenari helarazi zitzaizkien, alegazioak egin eta aurkezteko aukera izan zezaten.

Alkate ohiak aurkezturiko alegazioek txostenean zehazten diren paragrafo batzuen aldaketa eragin dute. Alkate ohiaren beste alegazio batzuk eta egungo alkatearenak -argibidetzat har ditzaitezunak- behin betiko txostenari erantsi dizkiogu.

II. DATU OROKORRAK

Baztan harana Iruñeko merindadean dagoen udalerria da, eremu euskaldunean. 376,81 km²-ko eremua du, eta 2014ko urtarrilaren 1ean 7.848 biztanle zituen. Iruñetik 58 kilometrotara dago.

Udalerrri honek antolakuntza tradizionala du, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak begiratua: "Baztan haraneko udalerriak bere antolakuntza tradizionala mantenduko du, Udalak, Batzar Nagusiak eta bertako herrietako batzarreek osatua. Horiek udalerrriaren gobernu eta administrazioan parte hartuko dute haraneko ordenantza orokorrek xedatzen dutenari jarraikiz. Ordenantza orokorrak Batzar Nagusiak soilik onetsiko ditu indarra duen legezko esparruari eta Nafarroako foru zuzenbidearen hastapenei jarraikiz".

Udalerria eratzen duten 15 tokiak hauek dira: Almandoz, Amaiur, Aniz, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Berroeta, Elbete, Elizondo, Erratzu, Gartzain, Iruñita, Oronoz Mugairi, Lekaroz eta Ziga.

Kokagune geografikoa hurrengo grafikoetan erakusten da:



Udalak erakunde hauek eratu zituen zerbitzuak emateko:

- Udal Ikastola erakunde autonomoa, 1983an, irakaskuntza euskaraz eskaini ahal izateko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.
- Francisco Joaquin de Iriarte zahar eta jubilatuen etxea, 1985ean, ongintzako fundazio gisa, "Casa Misericordia del Noble Valle y Universidad del Baztan" izena zuenaren jarraipen moduan, zaharrak hartu eta zaintzeko helburuarekin.
- "Giltxaurdi, S.L." sozietate publikoa, 2012an. Hain zuzen, udal instalazioak kudeatzeko, Haranaren garapen ekonomikoa eta soziala sustatzeko, eta udalerriko higiezinaren ondarea dinamizatzea bultzatzeko sortu zen.

Udalaren eta mendeko erakundeen datu ekonomiko nagusiak eta langileenak hauek ziren 2014ko ekitaldia amaitutakoan:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2014-12-31n
Udala	8.267.195	8.177.606	52
Zahar eta jubilatuen etxea	305.880	408.903	70*
Udal Ikastola	660.586	639.132	19

* Egoitza kudeatzen duen enpresak subrogatutako langileak.

	Diru-sarrerak	Gastuak	Langileak
"Giltxaurdi, S.L." sozietatea	426.034	391.073	14

Udala Erregerenako Mankomunitateko, Kintoko Mankomunitateko, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko, Bertizko Turismo Partzuergoko eta Cederna Garalur Elkarteko kidea da.

Udalak ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua hurrengo taulan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoa	Merkataritza-sozietate osoa	Erkide-tuta	Kontratu bidez
Kale-argiak	X				
Liburutegia	X				
Hilerria	X				
Uraren ziklo osoa	X				
Kultura	X				
Musika-eskola	X				
0-3 urte artekoentzako haur-eskolak					X
Kirol jardueren kudeaketa	X		X		
Berdintasuna	X				
Ikastola		X			
Errepideen garbiketa	X				
Hiltegia					X
Udaltzaingoa	X				
Hondakinen bilketa	X			X	
Zahar eta jubilatuen etxea		X			
Gizarte-zerbitzuak	X				
Hirigintza	X				

Tokiko erakundeari aplikatu dakioken araubide juridikoa, besteak beste, hauek eratzen dute: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta arlo honetan indarrean dauden arauak.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Baztango Udalaren fiskalizazioa egin dugu, 2014ko ekitaldikoa.

Lanaren helburua da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

- 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak, bere alderdi nagusi guztietan, behar bezain irudi doia erakusten duen, 2014ko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaitzari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera.

- Udalak eta haren mendeko erakundeek legea bete duten 2014ko finantza-jardueran.
- Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera bateratua 2014ko abenduaren 31n.
- Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak bete diren.

Fiskalizazioaren helburua 2014ko kontu orokorra izan zen. Haren prestaketa eta edukia Udalaren erantzukizuna da, eta, 272/1998 Foru Dekretuaren arabera, kontabilitateko egoera-orri hauek eratuta egongo da:

- Udalaren beraren eta haren erakunde autonomoen kontua:
 - a) Aurrekontuaren likidazio-espeditentia.
 - b) Egoera-balantzea, eta galeren eta irabazien kontua.
 - c) Eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizuneko gastuen eta diru-sarreraren konpromisoen egoera-orria, baloreen egoera eta mugimenduen egoera-orria, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuen oroitidazkia.
- Udal sozietatearen kontuak: egoera-balantzea, eta galeren eta irabazien kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Ez da aurkeztu Udalaren eta haren mendeko erakundeen arteko kontu bateratua.

Fiskalizazioan, hain zuzen, barneko kontrola aztertu zen, eta Udalaren eta haren mendeko erakundeen ondare-kontuen eta aurrekontuko gastuen eta diru-sarreraren lagin bat. Horretarako, proba selektiboak edo hautaprobak egin ziren eta lanaren helburuak betetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun auditoriako teknikak erabili genituen.

Hirigintzaren arloarekin lotuta, Aroztegia Planaren izapidetzea deskribatzen dugu. Ez dugu haren legezotasunaren gaineko iritzirik eman, Lekarozko Aroztegia Jauregia alderdiaren turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren behin betiko onspena *sub iudice* eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia erabakia hartzeko baitago.

Lana gauzatu zen Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta bai ISSAIS-ES 100, 200 eta 400 izeneko araei jarraituz ere. Arau horiek sektore publikoaren fiskalizazioari buruzko oinarritzko printzipioen, finantza-auditoriaren eta betetzearen fiskalizazioaren gainekoak dira, hurrenez hurren, eta Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek onartutakoak. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautapoba edo prozedura tekniko guztiak aplikatu dira.

IV. IRITZIA

Baztango Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitateko egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Kontu-hartzailtza da kontu orokorra eratzeke ardua duena. Hain zuzen ere, Udalaren eta haren mendeko erakundeen ondarearen, finantza-egoeraren, emaitza ekonomikoaren eta aurrekontu-betetzearen irudi doia adierazteko moduan egin behar du, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruaren eta iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dagoen kontu orokorra prestatzeko bidea emateko beharrezko jotzen den barne kontrolaren arabera.

Udaleko Osoko Bilkurak 2015eko urriaren 22an onartu zuen kontu orokorra.

Udalak bermatu beharko du bai ekitaldian egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta bai kontu orokorrean jasotako informazioa ere bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da kontu orokorrari buruzko iritzia eta 2014ko ekitaldian gauzatutako eragiketen legezketasunari buruzkoa ematea, gure fiskalizazioan oinarrituta. Horretarako, fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak betetzea, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egitea ere, honako helburuarekin: kontu orokorrean arrazoizko segurtasun bat lortzea eta hartan akats materialik ez egotea; eta ekitaldian egindako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2014ko ekitaldiko finantzaketako egoera-orrietan jasotako informazioa bat etortzea, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatzea, auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorrean adierazitako informazioari buruz, bai eta fiskalizatutako ekitaldian araudian ezarritako alderdi nabarmenak betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorraren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne-kontrola hartzen du kontuan –erakundeak kontu orokorra egin dezan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedearekin. Auditoria batek barnean biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorraren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du finantza-fiskalizazioaren eta legezketasuna betetzearen gainean gure iritzia emateko.

IV.1. FINANTZA-AUDITORIARI BURUZKO IRITZIA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

Ez dago jasota ez Udalaren ez eta Zahar Etxearen ondasunen inbentario baloratu eta eguneraturik, Udalean 56,01 milioiko eta Zahar Etxean 1,83 milioiko ibilgetu-saldoak babesteko.

FINANTZA-AUDITORIAREN IRITZIA

Gure iritiz, aurreko salbuespenen eraginengatik izan ezik, 2014ko kontu orokorrak, alderdi adierazgarri guztietan, ondarearen eta finantza-egoeraren irudi doia adierazten du, eta bai aurrekontu-likidazioarena eta emaitza ekonomikoarena ere, 2014ko abenduaren 31n, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoaren arau-esparruaren arabera.

ENFASI-PARAGRAFOA

Iritziari eragin gabe, 2014ko uztailaren 4an Baztan haranean izan ziren uholde larrien gainean ohartarazi behar dugu, Udalean eta Zahar Etxean 455.855 euroko kapital-defizita eragin baitzuten.

IV.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure ustez, Udalaren eta haren mendeko erakundeen finantza-jarduera eta 2014ko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoak kudeatzeari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV.3. EKONOMIA ETA FINANTZA-EGOERA BATERATUA

2014an, Udalaren eta bi erakunde autonomoen (Udal Ikastola eta Zahar Etxea) aitortutako eskubideak 9,16 milioi eurokoak izan ziren, 2013ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 14 handiagoak.

Aitortutako betebeharrak 9,15 milioi eurokoak izan ziren, 2013an baino ehuneko 12 handiagoak. Betebeharrak guztietatik ehuneko 20 uholdeekin lotutako gastuak dira, arrazoi horregatik 2014an aitortutako diru-sarreraren %15aren aurrean.

2014an, gastuen helburuaren eta haien finantzaketaren portzentajezko konposizioa hau izan zen:

Gastuaren izaera	Portzentajea	Finantzabidea	Portzentajea
Langileak	31	Zergak eta prezio publikoak	37
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	28	Transferentziak	58
Inbertsio errealak	27	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	5
Transferentziak	7		
Finantza-karga	7		
Guztira	100	Guztira	100

2014an aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 31 langileekin lotutako gastuei egokitu zitzaizkien, ehuneko 28 ondasun arruntei eta zerbitzuei, eta ehuneko 27 inbertsioei. Diru-sarreraren alde-tik, jasotako transferentziak nabarmentzen dira, aitortutako eskubide guztien ehuneko 58 baitira, eta bai zergak eta prezio publikoak ere, ehuneko 37 baitira.

Jarraian, 2014ko ekitaldiko betetze bateratuaren zenbait adierazle ageri dira, eta bai aurreko ekitaldian izandakoekiko aldea ere:

	2014	2013	Aldaketaren portzentajea, 2014/13
Diru-sarrerak, guztira	9.161.660	8.041.593	14
Gastuak, guztira	9.153.642	8.192.568	12
Diru-sarrera arruntak	7.330.078	7.131.590	3
Funtzionamendu-gastuak	5.953.704	5.766.697	3
Aurrezki gordina	1.376.374	1.364.893	1
Finantza-karga	693.901	725.720	-4
Aurrezki garbia	662.473	639.173	7
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	1.831.582	910.003	101
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	2.506.036	1.700.151	47
Zorpetze-maila	%9,47	%10,18	-7
Zorpetze-muga	%18,78	%19,14	-2
Zorpetze-ahalmena	%9,31	%8,96	4
Zorra, guztira	6.560.832	7.156.766	-8

2014an Udalak eta haren erakunde autonomoek aitortutako eskubide guztietatik ehuneko 80 diru-sarrera arruntak dira, eta gainerako ehuneko 20a kapitaleko diru-sarrerei dagokie.

Diru-sarrera arrunten bidez funtzionamendu-gastuak finantzatu eta gero, Udalak eta haren erakunde autonomoek 1.376.374 euroko aurrezki gordina izan zuten, eta haietatik 693.901 euro finantza-kargari erantzutera bideratu ziren.

2014an egindako inbertsioak 2.451.036 eurokoak izan ziren, 2013koekin alderatuta, ehuneko 49 handiagoak, uholdeek eragin zituzten kalteen ondorioz.

2014an, zorpetze-ahalmen bateratua diru-sarrera arrunten ehuneko 9,31koa zen eta 6.560.832 eurokoa zen zorra. Hain zuzen, Udalarena zen zor osoa.

Zorpetzea itundu zen inbertsioak finantzatzeko, interes-tasa aldakorrean, Euriborrera erreferentziatuta, gehi 0,35 eta 1,95 artean dabilen diferentziala, eta 13 urteko batez besteko epe-mugarako. 2014an, 693.901 euroko finantza-karga izan da, eta haietatik 595.934 euro amortizazioak izan dira eta 97.967 euro interesetakoak.

2014ko ekitaldian sortutako gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo likidezia-soberakina 849.301 eurokoa izan zen Udalean, 97.174 eurokoa Zahar Etxean eta 56.369 eurokoa Ikastolan.

Laburbilduz, Udalak eta haren erakunde autonomoek, 2014ko abenduaren 31n, finantza-egoera ona dute, nahiz eta 2014an uholdeen ondoriozko gastu bereziei egin behar izan dieten aurre. Hartara, 662.473 euroko aurrezki garbia sortu zen, zorpetze-ahalmena baliabide arrunten ehuneko 9,31koa da, eta bai Udalak bai Ikastolak eta Zahar Etxeak ere diruzaintza-gerakina dute gastu orokorretarako.

- Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuetarako, Administrazio Publikoa Udalak, Udal Ikastolak eta Francisco Joaquin de Iriarte zahar eta jubilatuen etxeak eratzten dute; ez, ordea, "Giltxaurdi, S.L." udal sozietateak. Izan ere, azken hori merkatukotzat jotzen da, azken hiru ekitaldian salmentengatik diru-sarrerek ekoizpen-kostuen ehuneko 50 baino gehiago estali baitituzte.

Administrazio Publikotzat hartutako erakundeen multzoak 510.462 euroko finantzaketa-ahalmena eragin zuen. 2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoak, jasotzen du Estatuak eta autonomia erkidegoek –ez, ordea, tokiko korporazioek– egiturazko defizita eduki ahal izango dutela, natura-hondamendiak

gertatzen badira. Baztango Udalak, 2014an uholdeak izan bazituen ere, aurrekontu-superabita izan zuen ekitaldi horretan.

Udaleko Kontu-hartzailetzaren txosten baten arabera, gastu erregela bete zen eta 112.020 euroko tartea lortu zen, uholdeengatiko gastuen ondoriozko gastu berezia doitu zelako Udalean eta Zahar Etxean.

Nahiz eta doikuntza hori ez dagoen aurreikusita gastu erregela kalkulatzeko Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren jarraibideetan, uholdeen ondorioz gastuaren muga gainditu izana finantzatzeko, aseguruen partzuergoaren kalte-ordaina eta diruzaintza-gerakina baliatu ziren, eta diru-sarreraren kontzeptu horiek ez ziren kendu, 2014ko ekitaldiko gastu konputagarria zehazteko helburuetarako.

Diru-sarrera arrunten ehuneko 89,51koa da zorpetzea; ezarrita dagoen ehuneko 110aren mugatik beherakoa, hortaz.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari dagokionez, ez da kalkulatu eta, horrenbestez, ez da argitara emango. 2014ko ekitaldian ez zegoen ezarrita fakturen erregistroa.

V. FINANTZETAKO EGOERA-ORRIAK

V.1. BAZTANGO UDALA

Gastuen aurrekontua betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitorrutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzearen %	%, aitorrutako guztiaren gainean
Langile-gastuak	1	2.432.365	0	2.432.365	2.310.715	2.275.789	34.926	95	28
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	2.297.250	114.373	2.411.623	2.341.162	2.188.092	153.070	97	29
Finantza-gastuak	3	108.000	-8.800	99.200	97.968	97.968	0	99	1
Transferentzia arruntak	4	745.255	-52.678	692.577	627.221	463.215	164.006	91	8
Inbertsio errealak	6	550.317	2.084.933	2.635.250	2.149.607	1.170.439	979.168	82	26
Kapital-transferentziak	7	61.630	0	61.630	55.000	55.000	0	89	1
Finantza-aktiboak	8	0	0	0	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboak	9	596.100	0	596.100	595.933	595.933	0	100	7
Gastuak, guztira		6.790.917	2.137.828	8.928.745	8.177.606	6.846.436	1.331.170	92	100

Diru-sarrerren aurrekontua betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorrutako eskubideak	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Betetzearen %	%, aitorrutako guztiaren gainean
Zuzeneko zergak	1	2.005.600	0	2.005.600	2.099.472	1.921.525	177.947	105	25
Zeharkako zergak	2	324.000	0	324.000	345.847	284.773	61.074	107	4
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	797.850	0	797.850	878.616	823.982	54.634	110	11
Transferentzia arruntak	4	2.832.890	15.703	2.848.593	2.826.443	2.701.266	125.177	99	34
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	484.739	0	484.739	475.438	382.272	93.166	98	6
Inbertsio errealak besterentzea	6	4.350	0	4.350	4.350	4.350	0	100	
Kapital-transferentziak	7	341.488	1.386.034	1.727.522	1.637.028	1.256.299	380.729	95	20
Finantza-aktiboak	8	0	736.092	736.092	0	0	0		
Finantza-pasiboak	9	0	0	0	0	0	0		
Diru-sarrerak, guztira		6.790.917	2.137.829	8.928.746	8.267.194	7.374.467	892.727	93	100

Aurrekontu-emaiza

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	7.237.022	8.267.195
Aitortutako betebeharrak garbiak	7.551.869	8.177.606
Aurrekontu-emaiza	-314.847	89.589
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	92.195	184.194
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	854.343	11.075
Diruzaintza-gerakinaren bidez finantzatutako gastuak	0	438.868
Aurrekontu-emaiza doituak	447.301	355.338

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orrria

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia	Aldaketaren portzentajea
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	841.373	983.693	17
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	621.483	892.727	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.184.810	1.051.972	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	67.600	17.585	
(+) Ordainketen itzulketak	0	0	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	1.032.399	978.287	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	121	304	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	948.738	1.861.823	96
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	482.244	1.331.170	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	93.811	94.811	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	372.683	435.842	
(-) Ordaintzeko dauden itzulketak	0	0	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	0	0	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	999.949	1.868.734	87
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	87.578	11.075	-87
= Diruzaintza-gerakina, guztira	980.162	1.001.679	2
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak dira-eta	0	96.616	100
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	72.538	55.762	-23
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	907.624	849.301	-6

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Deskribapena	Itxitako urteko zenbatekoa (2014)	Deskribapena	Itxitako urteko zenbatekoa (2014)
A Ibilgetua	56.010.073	A Funts berekiak	51.418.129
1 Ibilgetu materiala	48.601.132	1 Ondarea eta erreserbak	16.119.390
2 Ibilgetu immateriala	853.196	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	2.415.712
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	1.526.875	3 Kapitaleko diru-laguntzak	32.883.027
4 Herri-ondasunak	5.019.986	B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0
5 Finantza-ibilgetua	8.884	4 Hornidurak	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	C Epe luzeko hartzekodunak	6.560.832
6 Kitatu beharreko gastuak	0	4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	6.560.832
C Zirkulatzaila	3.885.153	D Epe laburreko hartzekodunak	1.916.265
7 Izakinak	0	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.915.961
8 Zordunak	2.016.419	6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta periodifikatzeagatiko doikuntzak	304
9 Finantza-kontuak	1.868.734		
10 Finantz. egoera iragankorrak, periodifikatzeagatiko doikuntzak, aplikatzeko daudenak	0		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko gal.)	0		
Aktiboa, guztira	59.895.226	Pasiboa, guztira	59.895.226

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)		0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	1.207.654	1.286.533
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	35	27.874
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuen eskubideen eta betebeharren aldaketak	45.715	57.669	84 Itxitako aurrekontuen eskubideen eta betebeharren aldaketak	0	0
89 Mozkin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.161.975	1.253.737	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	1.207.690	1.311.406	Guztira	1.207.690	1.311.406

V.2. UDAL IKASTOLA

Gastuen aurrekontua betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitorrutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzearen %	aitortutako guztiaren gainean
Langile-gastuak	1	574.521	0	574.521	559.046	547.251	11.795	97	87
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	80.847	0	80.847	80.086	73.064	7.022	99	13
Finantza-gastuak	3	0	0	0	0	0	0		
Transferentzia arruntak	4	0	0	0	0	0	0		
Inbertsio errealak	6	0	0	0	0	0	0		
Kapital-transferentziak	7	0	0	0	0	0	0		
Finantza-aktiboak	8	0	0	0	0	0	0		
Finantza-pasiboak	9	0	0	0	0	0	0		
Finantza-pasiboak		655.368	0	655.368	639.132	620.315	18.817	98	100

Diru-sarreraren aurrekontua betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorrutako eskubideak	Kobrantsak	Kobrantszeko dagoena	Betetzearen %	aitortutako guztiaren gainean
Zuzeneko zergak	1	0	0	0	0	0	0		
Zeharkako zergak	2	0	0	0	0	0	0		
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	57.881	0	57.881	62.510	54.536	7.974	108	9
Transferentzia arruntak	4	597.487	0	597.487	598.076	595.203	2.873	100	91
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	0	0	0	0	0	0		
Inbertsio errealak besterentzea	6	0	0	0	0	0	0		
Kapital-transferentziak	7	0	0	0	0	0	0		
Finantza-aktiboak	8	0	0	0	0	0	0		
Finantza-pasiboak	9	0	0	0	0	0	0		
Diru-sarrerak guztira		655.368	0	655.368	660.586	649.739	10.847	101	100

Aurrekontu-emaiza

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	617.398	660.586
Aitortutako betebeharrak garbiak	610.973	639.133
Aurrekontu-emaiza	6.425	21.453
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	0	0
Finantzaketaren desbideratze positiboa	0	0
Diruzaintza-gerakinaren bidez finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaiza doituia	6.425	21.453

Diruzaintza-gerakinaren egoera orria

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia	Aldaketaren portzentajea
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	7.237	20.496	183
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	7.056	10.847	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	0	0	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	181	9.649	
(+) Ordainketen itzulketak	0	0	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	0	0	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	41.461	37.777	-9
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	17.759	18.817	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	0	0	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	23.702	18.960	
(-) Ordaintzeko dauden itzulketak	0	0	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	0	0	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	69.140	73.650	7
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	
= Diruzaintza-gerakina, guztira	34.916	56.369	61
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak dira	0	0	
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	34.916	56.369	61

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Deskribapena	Itxitako urteko zenbatekoa (2014)	Deskribapena	Itxitako urteko zenbatekoa (2014)
A Ibilgetua	20.550	A Funts berekiak	76.919
1 Ibilgetu materiala	20.550	1 Ondarea eta erreserbak	45.580
2 Ibilgetu immateriala	0	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	27.878
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	3 Kapitaleko diru-laguntzak	3.461
4 Herri-ondasunak	0	B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0
5 Finantza-ibilgetua	0	4 Hornidurak	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	C Epe luzeko hartzekodunak	0
6 Kitatu beharreko gastuak	0	4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	0
C Zirkulatzaila	94.146	D Epe laburreko hartzekodunak	37.777
7 Izakinak	0	Aitortutako betebeharreratiko hartzekodunak	18.817
8 Zordunak	20.496	Erakunde publikoak	18.247
9 Finantza-kontuak	73.650	Aurrekontukoak ez diren beste hartzekodun batzuk	713
10 Finantz. egoera iragankorrak, periodifikatzeagatiko doikuntzak, aplikatzeko daudenak	0		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko gal.)	0		
Aktiboa, guztira	114.696	Pasiboa, guztira	114.696

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	21.453	6.425
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuen eskubideen eta betebeharren aldaketak	0	0	84 Itxitako aurrekontuen eskubideen eta betebeharren aldaketak	0	0
89 Mozkin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	21.453	6.425	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	21.453	6.425	Guztira	21.453	6.425

V.3. FRANCISCO JOAQUIN DE IRIARTE ZAHAR ETA JUBILATUEN ETXEA

Gastuen aurrekontua betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin-betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetzearen %	%, aitortutako guztia- ren gainean
Langile-gastuak	1	0	0	0	0	0	0		
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2	111.622	0	111.622	107.474	99.537	7.937	96	26
Finantza-gastuak	3	0	0	0	0	0	0		
Transferentzia arruntak	4	0	0	0	0	0	0		
Inbertsio errealak	6	0	359.827	359.827	301.429	229.576	71.853		74
Kapital-transferentziak	7	0	0	0	0	0	0		
Finantza-aktiboak	8	0	0	0	0	0	0		
Finantza-pasiboak	9	0	0	0	0	0	0		
Gastuak, guztira		111.622	359.827	471.449	408.903	329.113	79.790	366	100

Diru-sarreraren aurrekontua betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetzearen %	%, aitortutako guztia- ren gainean
Zuzeneko zergak	1	0	0	0	0	0	0		
Zeharkako zergak	2	0	0	0	0	0	0		
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	3	8.700	0	8.700	24.755	24.755	0	285	8
Transferentzia arruntak	4	102.922	0	102.922	90.600	90.600	0	88	30
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	0	0	0	321	321	0		
Inbertsio errealak beste- rentzea	6	0	0	0	0	0	0		
Kapital-transferentziak	7	0	165.735	165.735	190.204	190.204	0	115	62
Finantza-aktiboak	8	0	194.092	194.092	0	0	0	0	
Finantza-pasiboak	9	0	0	0	0	0	0		
Diru-sarrerak, guztira		111.622	359.827	471.449	305.880	305.880		65	100

Aurrekontu-emaiza

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	280.172	305.880
Aitortutako betebeharrak garbiak	122.726	408.903
Aurrekontu-emaiza	157.446	-103.023
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	7.714	0
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	0	0
Diruzaintza-gerakinaren bidez finantzatutako gastuak	0	135.694
Aurrekontu-emaiza doituak	149.732	32.671

Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia	Aldaketaren portzentajea
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	127.844	450	-100
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	126.345	0	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	2.588	2.587	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	1.499	450	
(+) Ordainketen itzulketak	0	0	
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	2.588	2.587	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	11.461	80.467	602
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	10.460	79.790	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	324	0	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	677	677	
(-) Ordaintzeko dauden itzulketak	0	0	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	0	0	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	84.686	177.190	109
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	
= Diruzaintza-gerakina, guztira	201.069	97.173	-52
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak diru-erla-eta	0	0	
Baliabide atxikiaren diruzaintza-gerakina	0	0	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	201.069	97.173	-52

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Aktiboa			Pasiboa		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
Ibilgetu materiala	1.831.011	1.529.582	Ondarea eta erreserbak	835.306	835.306
202 Eraikuntzak	300.618	-811	100 Ondarea	835.306	835.306
203 Makineria, instalazioak eta erremintak	1.270.785	1.270.785	Kapitaleko diru-laguntzak	1.342.069	1.151.865
205 Altzariak	259.608	259.608	14 Jasotako kapitaleko diru-laguntzak	1.342.069	1.151.865
Finantza-ibilgetua	111.759	111.759	Epe laburreko zorrak	80.467	11.461
253,263 Obligaz. eta bonuak eta errenta finkoko beste inbertsio batzuk	862.883	862.883	400, 401 Hartzekodunak, aitortutako eskubideengatik	79.790	10.784
268 Beste finantza-inbertsio iraunkor batzuk	-751.123	-751.123	51 Aurrekontukoak ez diren beste hartzekodun batzuk	677	677
Zordunak	3.037	130.432	Emaitzak	7.335	1.190
430, 431 Zordunak, aitortutako eskubideengatik	2.587	128.932	890 Ekitaldiko emaitzak (mozkina)	7.335	1.190
56 Aurrekontukoak ez diren beste zordun batzuk	450	1.499			
Finantza-kontuak	177.190	84.686			
550, 555,558 Aplikatzeko dauden kontu-sailak	0	0			
571, 572, 573 Bankuak eta kreditu-erakundeak	177.190	84.686			
Aplikatzeko dauden emaitzak	140.982	140.982			
130 Aplikatzeko dagoen emaitza	140.982	140.982			
Aktiboa, guztira	2.263.980	1.997.441	Pasiboa, guztira	2.265.176	1.999.821

Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	1.190	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	8.202	0
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	1.196	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuen eskubideen eta betebeharren aldaketak	0	0	84 Itxitako aurrekontuen eskubideen eta betebeharren aldaketak	323	0
89 Mozkin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	7.329	0	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	1.190
Guztira	8.525	1.190	Guztira	8.525	1.190

V.4. "GILTXAURDI, S.L." SOZietatea

2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Aktiboa			Pasiboa		
Deskribapena	2014		Deskribapena	2014	
A. Aktibo ez-arrunta	16.680		A. Ondare garbia	45.432	
II. Ibilgetu materiala	16.851		A1) Funts berekiak	26.647	
212, 219, 2812, 2819 2. Instalaz. teknikoak eta beste ibilgetu material batzuk	16.851		I. Kapitala	3.300	
V. Epe luzerako finantza-inbertsioak	-171	100	1. Kapital eskrituratu	3.300	
26 5. Beste finantza-aktibo batzuk	-171		V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-11.565	
B. Aktibo arrunta	75.160	121	2. (Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak)	-11.565	
III. Zordun komertz. eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	9.259	6, 7	VII. Ekitaldiko emaitza	34.912	
1. Bezeroak, zerbitzuak eman eta saltzeagatik	9.237	130	A3) Jasotako diru-laguntzak, emaitzak eta legatuak	18.785	
430 a) Bezeroak, zerbitzuak eman eta saltzeagatik epe luzera	9.237		C. Pasibo arrunta	46.409	
4700 6. Beste kreditu batzuk Administrazio Publikoekin	22		V. Hartzekodun komertz. eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	46.409	
VII. Eskudirua eta beste aktibo likido balio-kide batzuk	65.901		1. Hornitzaileak	2.589	
570, 572 1. Diruzaintza	65.901	400	a) Hornitzaileak epe luzera	2.589	
		41	3. Hainbat hartzekodun	7.963	
		465	4. Langileak (ordaintzeko dauden ordainsariak)	13.559	
		4752	5. Pasiboak, zerga arruntarengatik	125	
		4750	6. Beste zor batzuk Administrazio Publikoekin	22.172	
		4751, 476			
Aktiboa, guztira (A+B)	91.840		Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+B+C)	91.840	

2014ko abenduaren 31ko galeren eta irabazien kontua

Deskribapena	2014
A) ERAGIKETA JARRAITUAK	
1. Negozio zifraren zenbateko garbia	259.386
705 b) Zerbitzuak ematea	259.386
4. Hornidurak	-22.701
600 a) Salgaien kontsumoa	-3.730
602 b) Lehengaien eta beste gai kontsumigarri batzuen kontsumoa	-13.724
607 c) Beste enpresa batzuek egindako lanak	-5.246
5. Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk	166.648
75 a) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	166.648
6. Langile-gastuak	-205.570
640 a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-154.813
642 b) Karga sozialak	-50.756
7. Ustiapeneko beste gastu batzuk	-159.260
62 a) Kanpoko zerbitzuak	-154.981
631 b) Zergak	-455
650 c) Galerak, narriadura eta horniduren aldaketa eragiket.	-3.824
68 8. Ibilgetuaren amortizazioa	-3.542
A1. USTIAPENAREN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13)	34.962
14. Finantzetako diru-sarrerak	5
b) Balore negoziagarrien eta beste finantza tresna batzuenak	5
769 b2) Beste batzuenak	5
15. Finantza-gastuak	3
669 b) Zorrak izateagatik beste batzuekin	3
A2. FINANTZA-EMAITZA (14+15+16+17+18+19)	8
A3. EMAITZA ZERGEN AURRETIK (A1+A2)	34.970
6300 20. Mozkinen gaineko zergak	-59
A4. EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORRENA (A3+20)	34.912
Ekitaldiko emaitza (A4+21)	34.912

VI. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako erregulartasunaren fiskalizaziotik ateratako ondorio nagusiak deskribatzen dira atal honetan, eta bai udal kudeaketa ekonomikoa hobetu ahal izateko gomendioak ere.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Udaleko osoko bilkurak 2014ko otsailaren 27an onartu zuen 2014. urterako aurrekontu orokorra, eta behin betiko onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, 2014ko apirilaren 9an. Alkateak 2015eko abuztuaren 20an onetsi zuen Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuaren likidazioa.

Kontu orokorrak, Udaleko osoko bilkurak 2015eko urriaren 22an onartutakoak, ez ditu egoera-orrri hauek: oroitidazkia eta kontabilitate-erakundeen multzoaren kontu bateratua (erakunde autonomoak eta udal sozietatea).

Ez dago jasota Udaleko Kontu-hartzaitzak barneko kontrol-eginkizunik egiten duenik, ez Udal Ikastola erakunde autonomoaren ez eta udal enpresaren kudeaketa ekonomikoaren gainean.

Udal ordezkariak ez du gehiengoa bere erakunde autonomoetako gobernu organoetan.

Gomendatzen dugu:

- *Aurrekontu orokorra, haren likidazioa eta kontu orokorra legez ezarrita dauden epeetan onartzea.*
- *Kontu orokorrean Udalaren eta haren mendeko erakundeen kontu bateratua eta oroitidazkia egin eta aurkeztea.*
- *Barneko kontrol-eginkizunak betetzea Udal Ikastolaren eta udal sozietatearen kudeaketa ekonomikoaren gainean.*
- *Udal erakunde autonomoen gobernu organoen osaera aztertzea, Udalak kontrol eraginkorra egin ahal izateko haietan.*

VI.2. UDALA

VI.2.1. langile-gastuak

2014an, Udaleko langileen gastuak 2.310.715 eurokoak izan ziren; hain zuzen ere, udal gastu guztien ehuneko 28. Behin betiko kredituen ehuneko 95eko betetze-maila izan zuten. Kontzeptu ekonomikoen arabera, gastu horien osaera hau izan zen 2013an eta 2014an:

Kontzeptua	2014ko gastua	2013ko gastua	Aldaketaren % 2014/2013
Ordainsariak kargu hautetsiei	119.632	117.605	2
Langile funtzionarioak	622.254	522.014	19
Langile lan-kontratudun finkoak	520.092	593.319	-12
Aldi baterako langile lan-kontratudunak	167.125	127.988	31
Beste langile batzuk	3.460	1.089	218
Kuota sozialak	862.519	839.497	3
Gastu sozialak	15.633	12.128	29
Langile-gastuak, guztira	2.310.715	2.213.640	4

2014ko ekitaldian, langile-gastuak 2013koak baino ehuneko 4 handiagoak izan ziren. Aldaketa horretan, nabarmendu behar da langile funtzionarioen gastua ehuneko 19 emendatu zela eta langile lan-kontratudun finkoena ehuneko 12 gutxitu zela, zenbait langile funtzionario bihurtu baitziren.

2014ko otsailaren 27an, Udaleko osoko bilkurak hasiera batean onetsi zuen 2014. urterako plantilla organikoa. Behin betiko onartu zen plantilla organikoa 2014ko maiatzaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean kaleratu zen, eta 45 lanpostu jasotzen ditu. Lanpostu horietatik 22 plaza huts moduan ageri dira, eta horietatik denak, bat izan ezik, aldi baterako beteta daude, haietako zenbait duela 20 urte baino gehiago.

Plantilla organikoan ez daude jasota lanpostu hauek, aldi baterako kontratupeko langileen bi-dez betetakoak: askotariko eginkizunetarako langilea, gizarte-langilea, gizarte-hezitzailea, berdintasun-teknikaria, aparejadorea, zaborretako teknikaria eta museoko administrari laguntzailea.

Ez plantillan ez eta langileen zerrendan ere, ez dago adierazita mantentze-lanetako bigarren ofizialaren arduradun eta Udaltzaingoaren koordinatzaile lanpostuen izendapen askea, ez eta haiei lotutako lanpostu-osagarriak ere.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak lanpostuen eta langile bakoitzaren eginkizunen gaineko azterlan deskribatzailea egin zuen, eta aurreikusita dago azterlan hori osatzea, lanpostuak eta haiei lotutako ordainsariak berrantolatze aldera.

Egiaztatu dugu azpiegitura-eragiketarako teknikari laguntzaile baten aldi baterako kontratazea merezimendu-, gaitasun-, berdintasun- eta publizitate-printzipioak betetzea bermatzen zuen prozedura baten arabera izapidetu zela.

Obren eta zerbitzuen arloan lanpostu hori betetzeko presazko premia justifikatu zen, titularrak erretiroa hartu zuelako. Langile finkoa hartuta betetzeko deialdi bat onartu eta argitaratu zuen Udalak, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 22/2013 Legea ez betetzeagatik Nafarroako Gobernuak egin zion errekerimenduaren ondorioz baliogabetu egin zuen eta aldi baterako bete zuen lanpostua.

Langile hauen ordainsariak aztertu ditugu: idazkaria, ikastetxeko atezaina, berdintasun-teknikaria eta museoko administrari laguntzailea. Egindako azterketa horretatik ondorioztatu dugu, oro har, plantillan betetzen duten lanpostuari eta langile-espeditentean jasotako administrazio- eta familia-inguruabarrei dagozkien ordainsariak jasotzen dituztela, eta egindako atxikipenak eta ordainsarien ordainketak zuzenak direla.

Gomendatzen dugu:

- *Plantilla organikoan jasotzea egiturazko premiei eta premia iraunkorrei erantzuten dieten lanpostu guztiak.*
- *Plantillan islatu edo jasotzea lanpostu guztien ordainsari-osagarriak.*
- *Aldi baterako betetako lanpostu hutsen egoera erregularizatzea, eta, legezko xedapenek eta aurrekontuak horretarako bidea ematen dutenean, haiek hornitzea, egokia den enpleguko eskaintza publikoaren arabera.*

VI.2.2. ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea

2014an, ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 2.341.162 eurokoak izan ziren. Behin betiko kredituak ehuneko 97an bete ziren. 2014an aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 29 izan ziren, eta, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 2,31 handiagoak izan ziren.

Gastuen lagin hau fiskalizatu da:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak
Haur Hezkuntzako ikastetxeen kudeaketa	174.931
Kaleak, espaloiak eta mendi-bideak konpontzea	166.332
Notarioaren bulegoa, gastu juridikoak	116.021
Uholdeengatiko kalteak	32.373
Eskola-kontzentrazioaren garbiketa	30.250
Futbol-zelaiaren mantentze-lanak	24.974
Folk musikako programa	24.241
Eskola-jantokiko zerbitzua	21.883
Kiroldegia kudeaketa	20.620
Peritua, uholdeen koordinaziorako	19.045
Prebentzio-jardunaldiak	5.073
Bankuko zerbitzuak	2.006
Lagina, guztira	615.866

Egiaztatu da, oro har, fiskalizatutako laginean sartutako gastuak justifikatuta daudela, kasu bakoitzeko kontratu arautzailearen arabera fakturatuta, onartuta, 30 egunetik beherako epean ordainduta eta zuzen kontabilizatuta.

- Kaleak, espaloiak eta mendi-bideak konpontzeko gastuak 166.332 eurokoak izan ziren eta Baztan udalerrria eratzten duten toki desberdinetan egin ziren. Tokietako fakturak jasotzen dituen heinean ordaintzen ditu izaera horretako gastuak, eta ekitaldi bakoitzean finantzatuko dituen konponketak egitea ez du ez planifikatu ez eta kudeatzen ere. Gastu hauen aurrekontu-betetzearen maila hasierako kredituaren ehuneko 159koa izan zen.

- Eskola-kontzentrazioaren garbiketa 2014an esleitu zen, Europar Batasunerako publizitate gabeko prozedura negoziatu baten bidez. Kontratatzeko-espeditentean ez dago jasota ez txosten juridikoa ez eta Kontu-hartzailearen fiskalizazioa ere.

- Kiroldegiko garbiketa eta mantentze-lanetako zerbitzua 1998an esleitu zen, eta kontrata-tzeak indarrean jarraitzen du.

Gomendatzen dugu:

- *Kontratatzeko-espeditentek osatzea, Kontratu Publikoen Foru Legean exijitutako dokumentu guztiekin.*

- *Hainbat tokitan egin beharreko konponketen gastuak programatzea.*

- *Kiroldegia garbitzeko eta hango mantentze-lanak egiteko kontratatutako zerbitzua ematea erregularizatzea.*

VI.2.3. inbertsioak

2014ko ekitaldiko inbertsioak 2.149.607 eurokoak izan ziren, eta behin betiko kredituen ehuneko 81,5ean bete ziren. 2014an aitortutako gastu guztien ehuneko 26 dira.

2014an egindako inbertsioen ehuneko 69 urte horretako uztailaren 4an izan ziren uholdeek eragindako kalteen ondoriozkoak izan ziren.

Gastuen lagin hau fiskalizatu da eta bai jarraian adierazten diren kontratatze-espeditenteen izapidetzea ere:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharra
Uholdeengatiko kalteak mendi-bide eta zubietan	1.414.969
Uholdeengatiko kalteak eraikinetan	50.199
Uholdeengatiko kalteak altzarrietan	26.178
Amaiurko biltegia	155.066
Hiltegiko lanak	89.895

Kontzeptua	Prozedura	Gonbidatuak	Lizitatuak kop.	Lizitazioaren prezioa, BEZik gabe	Adjudikazioaren prezioa, BEZik gabe	Jaitsiera % adjudikatzean
Amaiurko biltegia	Negoziatua, Europar Batasunerako publizitaterik gabea	8	1	149.184	149.134	0,03
Hiltegiko zatiketa-gela		9	2	68.536	65.589	4,30
Lantegia hiltegian	Zuzena		1		15.200	
Neurri zuzentzaileak hiltegian	Irekia		1	75.951	75.800	0,2

Egindako fiskalizazioaren arabera, alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Oro har, ez dago jasota ez idazkaria ez eta kontu-hartzailea ere lanak onartzean egon direnik.

- Uholdeengatiko kalteak. 2014ko uztailaren 4an uholdeak gertatu ziren Baztan haranean, eta alkatetzako ebazpenen bidez bide publikoetan, kaleetan, altzarrietan eta makinerian gauzatu beharreko jarduketa desberdinen larrialdi izaera onartu zen. 2014an, 1.491.346 euro inbertitu ziren jarduketa horietan.

Estatuko eta Nafarroako gobernuei eskatu zitzaizen Harana hondamendi-eremu izendatzeko, eta bai kalteak finantzatzeko laguntzak ere. Nafarroako Gobernuak 990.478 euroko diru-laguntza eman zuen, aseguruaren partzuergoak 212.185 euro ordaindu zituen eta Barne Ministerioak uko egin zion laguntzeari.

Uholdeek eragindako kalteak konpontzearekin lotutako lanak eta laguntzak kontratatzea larrialdiko espeditentearen bidez egin zen, Kontratu Publikoen Foru Legean jasota dagoen moduan, hondamen egoeren ondorioz administrazioak berehala jardun behar duenerako. Jarduketak gauzatu eta gero, ez dago jasota kontratatze-organismoak gastua onartu duenik, hura fiskalizatu ondoren, ez eta Kontratatze Atarian kaleratu direnik ere 30.000 eurotik gorako kontratatzeak, eginda-koak.

Mendi-bideetan, zubietan eta bideetan izandako kalteak konpontzeko lanen gastuak 73 eguneko batez besteko epean ordaindu ziren, Foru Administrazioak emandako funtsak eskuratu zirenean. Uholdeekin lotutako gainerako gastuak 30 egunetik beherako epean ordaindu ziren.

- Amaiurko biltegia

Azken ziurtagiria, 110.875 eurokoa, eta proiektuaren azken faktura, 5.428 eurokoa, 30 egunetik gorako epean ordaindu ziren, zehazki, 105 eta 114 egunetara.

Bukaerako ziurtagirian jasota dago kontraesana dakarten prezioak onartu zirela, kontratuan ageri ez ziren unitate berriak sartu zirelako (zenbatekoa 2.650 eurokoa izan zen). Kontratua aldatzeko espedientea ez zen formalki onartu, Kontratu Publikoen ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean ezarrita dauden baldintzen arabera.

- Lanak hiltegia

Hiltegia lan hauek egin ziren: lanak zatiketa-gelan, lantegian eta neurri zuzentzaileak.

Kreditua sortzeko aldaketa bat onartu zen, zatiketa-gelan inbertsioa egiteko, 32.035 eurokoa. FEADERekin batera finantzatutako laguntzen bidez, aldaketa finantzatzea proiektua gauzatzera baldintzatuta zegoen eta, horrenbestez, ez zen emateko konpromiso sendoa.

Kontratuan aurreikusita ez zeuden unitate berriak egiteak berekin ekarri zuen zatiketa-gelako kontratuaren adjudikazio-prezioa ehuneko 2,13 handitzea. Ez zen izapidetu egokia zen kontratu-aldaketa, Kontratu Publikoen Foru Legeak hori egiteko jasotzen badu ere.

Ez dago jasota ez zatiketa-gelaren ez lantegiaren zuinketa-akta, ez eta lantegiaren harrera-akta ere.

Hiltegiako neurri zuzentzaileei zegokien inbertsioa gauzatea 2015eko maiatza arte atzeratu zen, kontratatze-espedientea izapidetzean izan zen atzerapenaren ondorioz. 2014ko ekainean, kreditu berezi bat onartu zen, baina ez zen gauzatu eta, horrenbestez, onartu zen kreditua sartzeari 2015eko aurrekontuan.

- Inbertsio horiez gain, egiaztatu dugu 2011n eraikitako udal eraikin bat dagoela, 664.022 euroko kostua izan zuena eta egun hornitu gabe dagoena eta erabiltzen ez dena. Udalean adierazi digutenez, martxan jartzeko 180.000 euroko inbertsioa egin beharko litzateke.

Gomendatzen dugu:

- *Administrazioko kontratatze-espedienteetan Kontratu Publikoen Foru Legean eta Tokiko Administrazioaren Foru Legean exijitutako dokumentu guztiak sartzeari.*

- *Obra-unitate berriak sartzeari badira, egokia den kontratu-aldaketa izapidetzea.*

- *Udal ondasun guztien inbentario baloratu eta eguneratua onartzea, ibilgetuaren saldoa babesteko duena.*

- *Edozein inbertsio egin aurretik (adibidez, kasu honetan, eraikin bat), haren beharra eta erabilgarritasuna aztertzea.*

- *Erabili gabe dagoen udal eraikinak zertarako balio dezakeen aztertzea.*

VI.2.4. Transferentzia arrunten gastuak

2014an, transferentzia arrunten gastuak 627.221 eurokoak izan ziren, aurreko ekitaldikoekin alderatuta, ehuneko 0,5 txikiagoak. 2014an aitortutako obligazio guztien ehuneko 8 izan ziren. Behin betiko kredituen ehuneko 90,5eko betetze-maila izan zuten.

Onuradun hauei emandako diru-laguntza eta transferentzia arrunten lagin bat fiskalizatu da:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharra, 2014
Lekuak: ur-biltegi-tako mantentze-lanak	75.887
Zahar eta jubilatuen etxea	72.000
Bortzirietako Mankomunitatea: edukiontziak garbitzea	45.298
Bertako kirolak	44.667
Cederna Garalur	40.138
Udal Ikastola	35.530
Kalte-ordaina partikular bati	6.100
Lagina, guztira	319.620

- Udal Ikastolari egindako transferentzia Udalaren izenean jaulkitako fakturek justifikatzen dute. Izan ere, Ikastolaren funtzionamendu-gastuei dagozkie, eta Udalak onartu eta ordaintzen baititu. Ikastolaren estatutuen arabera, haren funtzionamendu-gastuak Udalaren konturakoak izango dira.

- Bortzirietako Hondakinen Mankomunitateari egindako 45.298 euroko ekarpena –kudeaketa, edukiontziak garbitzea eta bilketa-zerbitzuengatik egindakoa– biztanle-kopuruaren arabera kalkulatu dago. Zerbitzu horren gastuen eta diru-sarreraren likidazioak ez du arduradun bakar baten oniritzia.

- Partikular bati ordaindutako kalte-ordainak 2013ko urriko epai batean du oinarria. Edonola ere, gastu hori 2014an kontabilizatu zen.

Gomendatzen dugu:

- *Udal Ikastolaren funtzionamendu-gastuak bere izenean fakturatzea, eta berak onartu, kontabilizatu eta ordaintzea, Udalari fakturak aurkeztuta finantzatu ditzan.*

- *Hondakinak biltzeko zerbitzuarekin lotutako gastuen eta diru-sarreraren likidazioari oniritzia ematea.*

- *Gastuak kontabilizatzea sortzapen-irizpidearen arabera.*

VI.2.5. Udalaren diru-sarrerak

- Zergak

2014an, aitortutako eskubideak, zergengatik, 2.445.320 eurokoak izan ziren, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 105. Hain zuzen ere, Udalaren diru-sarreren ehuneko 29 izan ziren.

2013ko ekitaldiaren aldean, ehuneko 1 txikiagoak izan ziren, eta aldaketa horretan nabarmendu behar da ekonomia-jardueren gaineko zerga ehuneko 37,5 txikiagoa izan zela. Izan ere, 2013an, zerga horrekin lotutako ikuskatze batetik zetozen diru-sarrerak sortu ziren. Halaber, nabarmendu behar da hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ehuneko 120 handiagoa izan zela.

Zergengatik aitortutako eskubideak kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	2014ko eskubideak	2013ko eskubideak	Aldaketaren % 2014/13
Lurraren kontribuzioa	1.183.993	1.182.893	0,1
Ibilgailuen gaineko zerga	549.606	543.438	1,1
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	156.813	71.322	119,9
Ekonomia-jardueren gaineko zerga	209.061	334.446	-37,5
Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga	345.847	337.444	2,5
Zergak, guztira	2.445.320	2.469.543	-1

Lurraren kontribuzioa zergen ehuneko 48 da, eta horren ondotik daude ibilgailuen gaineko zerga, ehuneko 22arekin, eta eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga, zerga guztien ehuneko 14arekin.

Ondoren dagoen taula honetan, Udalak aplikatutako zerga-tasak Tokiko Ogasunen 2/95 Foru Legeak ezarritakoekin alderatzen dira:

Zerga-figura	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko zerga	0,30	0,10 - 0,50
Landa-lurraren gaineko zerga	0,80	
Ekonomia-jardueren gaineko zerga	1,25	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	16,50	8-20
Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga	4	2-5

- Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

2014an, tasa, prezio publiko eta beste diru-sarrera batzuegatik aitortutako eskubideak 878.616 eurokoak izan ziren, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 110. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 11 izan ziren. Hauek nabarmendu behar dira: hondakinak biltzogatiko diru-sarrerak, 0-3 urte arteko ikastetxeari dagozkion diru-sarrerak, Telefónica eta Iberdrolaren karrera, eta uraren tasak. Zehazki, denen artean, kapitulu osoaren ehuneko 70 hartzen dute.

Zerga hauen lagin bat aztertu da:

Kontzeptua	2014ko eskubideak	Kobratutakoaren %, ekitaldia ixtean
Lurraren kontribuzioa	1.183.993	%96
Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga	345.847	%82

Oro har, aztertutako zergen likidazioa eta bilketa hori erregulatzen duten arauen arabera egiten da, onartutako tasak aplikatu dira eta behar bezala kontabilizatuta daude. Egindako fiskalizazioetik alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

Udalak ez du balorazioaren txostena eguneratu 2004az geroztik eta ez da egokitu Tokiko Ogasunen Foru Legean ezarritako lurraren kontribuzioaren zerga-tasa bakarrera. Hartara, landa-ondasunei eta hiri-ondasunei tasa bereziak aplikatzen jarraitzen du.

Uraren ziklo osoaren zerbitzua ez dute tokiek ematen. 2015ean, zerbitzua arautzeko ordenantzen behin betiko onespina eman zen argitara, eta horrek ekarriko du toki guztietan kudeaketa-prozedura homogeneousak aplikatzea.

- Ondare bidezko diru-sarrerak

2014ko ekitaldian, ondare bidezko diru-sarrerak 475.438 eurokoak izan ziren; zehazki, aitortutako eskubide guztien ehuneko 6. Behin betiko aurreikuspenen ehuneko 98ko betetze-maila eduki zuten. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 6 izan ziren. Ondare bidezko diru-sareren ehuneko 82 herri-ondasunen aprobetxamenduei dagozkie.

2014ko ondare bidezko diru-sarrerak 2013ko ekitaldikoak baino ehuneko 35 handiagoak izan ziren. Zehazki, nabarmendu behar da zuraren eta egurraren aprobetxamenduak ehuneko 736 emendatu zirela.

Diru-sarrera hauen lagin bat aztertu da:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobrantza
Herri-lurren luberriketak eta landaketa-kanona	72.060	69.813
Harrobiko herri-erazketengatiko kanona	25.000	25.000
Oihan-loteengatiko diru-sarrerak	156.000	76.055

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu, oro har, aprobetxamenduengatiko diru-sarrerak beren ordenantza edo hitzarmen arautzailearen arabera likidatu eta kobratu direla, eta behar bezala kontabilizatuta daudela.

Gomendatzen dugu balorazioaren txostena eguneratzea.

VI.2.6. Finantza-kontuak

Udalaren diruzaintza-saldoa, 2014ko abenduaren 31n, 1.868.734 eurokoa zen; zehazki, aurreko ekitaldian baino ehuneko 87 handiagoa, kreditu-kontuetan erabilgarri zegoen saldoaren ondorioz.

Finantza-erakundeetan eskudiruko funtsak erabili ahal izateko sinadura baimenduak bereziki gabeak dira eta ez daude eguneratuta. Izan ere, baimendutako pertsona moduan egun Udalean ari ez diren pertsonak ageri dira.

Udalaren kutzak 3.763 euroko saldoa du ekitaldia ixtean, eta hileko batez besteko saldoa 3.000 euro ingurukoa da.

Gomendatzen dugu:

- *Finantza-erakundeetan diruzaintzako funtsak erabili ahal izatea baimentzea, sinadura erkidetu eta eguneratuaren bidez.*

- *Kutxaren bidez egindako eragiketak ahal den neurrian murriztea eta saldoaren hileko kontaketak egitea.*

VI.2.7. Itxitako ekitaldietako aurrekontu-zordunak

Itxitako ekitaldietako zordunak, 2013koak eta lehenagokoak, 2014ko abenduaren 31n kobratzeko zeudenak, 1.051.973 eurokoak ziren.

Jasota dago 1997. eta hurrengo urteetako zordunen kobrantza-kudeaketak egiten direla; ez, ordea, 1994, 1995 eta 1996ko ekitaldietako zordunenak (hiru horietako saldoa 129.842 eurokoa da).

Gomendatzen dugu:

- *Itxitako ekitaldietako zordunei buruzko informazioa, kontabilitateko aplikazioaren bidez lortutakoa, diru-bilketako datu-basearekin eta Agentzia Exekutiboaren informazioarekin bateratzea.*
- *Itxitako ekitaldietan kobratzeko dauden eskubideak berrikusi eta erregularizatzea.*

VI.2.8. Itxitako ekitaldietako aurrekontu-hartzekodunak

2014 aurreko ekitaldietako gastuak, 2014ko abenduaren 31n ordaintzeko zeudenak, 94.811 eurokoak ziren. Haietatik ehuneko 98 2008ko ekitaldikoak eta lehenagokoak ziren, baita 1991. urtekoak ere. Ez dago jasota gastu horiei jarraipenik egiten zaienik ez eta kudeaketarik ere ordaindu ahal izateko.

Gomendatzen dugu itxitako ekitaldietan ordaintzeko dauden gastuak berrikusi eta erregularizatzea.

VI.3. UDAL IKASTOLA

Udal Ikastola erakunde autonomoaren gainean egindako erregulartasunaren fiskalizaziotik ateratako ondorio nagusiak adierazten dira jarraian, eta bai dagozkien gomendioak ere.

VI.3.1. Alderdi orokorrak

Ikastolaren egungo estatutuak 2000. urtekoak dira.

Udal Ikastola Udalaren erakundea da, berezko nortasun juridikoa eta independentea duena. Bere Barne Erregelamendua du, eta, era berean, Nafarroako Gobernuak 1997an Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako onartu zuen erregelamendu organikoak eraentzen du.

Ikastolaren 2014ko ekitaldirako aurrekontua, hasiera batean, 2014ko otsailaren 27ko osoko bilkuran onetsi zuten, 655.368 euroko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena zuela. Aurrekontu horren betetzea hau izan zen:

Gastuak

Kontzeptua	Hasierako kreditua	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen portzentajea
Langile-gastuak	574.521	574.521	559.046	97
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	80.847	80.847	80.086	99
Finantza-gastuak	0	0	0	
Gastuak, guztira	655.368	665.368	639.132	97,5

Diru-sarrerak

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetzearen portzentajea
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	57.881	57.881	62.510	108
Transferentzia arruntak	597.487	597.487	598.076	100
Diru-sarrerak, guztira	655.368	655.368	660.586	101

Udal Ikastolaren gastuak, 2014an, 639.132 eurokoak izan ziren, 2013an baino ehuneko 5 handiagoak. Ikastolaren gastuen ehuneko 87 langile-gastuei dagozkie, eta gainerakoa, ondasun arrunt eta zerbitzuei.

2014an, Ikastolaren diru-sarrerak 660.586 eurokoak izan ziren; zehazki, 2013an baino ehuneko 7 handiagoak. Diru-sarrera horien ehuneko 90 Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzei dagozkie, ehuneko 9 jantokiko diru-sarrerei eta gainerako ehuneko 1a Udalaren diru-laguntzei, kiroletarako diru-laguntzei, hain zuzen.

2014ko ekitaldian, Ikastolaren diruzaintza-gerakina 56.369 eurokoa izan zen, 2013an sortutakoa baino ehuneko 61 handiagoa.

2014ko abenduaren 31n, kontabilizatutako finantza-kontuen saldoa 73.650 eurokoa zen. Eskudirua erabili ahal izatea ez dago eguneratuta egungo arduradunen sinadurarekiko. Ikasleen Gurasoen Elkarteari dagokion kontu bat dago Ikastolaren izenean.

VI.3.2. Gastuak

- Langile-gastuak

2014ko ekitaldian, langile-gastuak 559.046 eurokoak izan ziren; eta haietatik ehuneko 75 langileen ordainsariei egokitu zitzaizkien eta gainerako ehuneko 25a aseguru sozialei.

2014ko abenduaren 31n, Ikastolak 19 langile zituen. Plantilla organikoa ez da onartu ez eta argitaratu ere.

Ikastolako langileak Nafarroako ikastolen hitzarmen kolektiboaren mende daude. Ez dago jasota Udaleko osoko bilkurak hitzartu duenik Ikastolako langileek bat egitea hitzarmen horrekin.

Bi irakasle titularren eta jantokiko laguntzaile baten ordainsariak aztertu ditugu, eta, oro har, Nafarroako ikastolen hitzarmen kolektiboan ezarritakoekin bat datoz.

2013. urtea arte, Eskola Kontseiluak kontratatzen zituen Ikastolako langileak, inguru horretako hedabideetan deialdi publikoa egin, merezimenduak baloratu eta hautagaiei elkarrizketa egin eta gero. Aldi baterako kontratatutako langileak finko izatera igarotzen ziren hiru urteren buruan.

2013tik aurrera, Udalak eta Ikastolak langileak kontratatzeko prozedura bat hitzartu zuten. Hain zuzen, erabaki zuten lanpostuen araberrako kontratatze-poltsak sortzea, deialdia onartu eta Enpleguko Institutu Nazionalean kaleratzea, Udalaren webgunean eta bertako hedabideetan, merezimenduen lehiaketa egitea eta bai probak ere langileak hautatzeko.

Egiaztatu dugu deskribatutako prozedurari jarraitu zitzaiola –oro har, merezimendu eta gaitasun printzipioak aplikatzea bermatzen duen prozedura– pedagogia terapeutikoko espezialitatea zuen maisua edo maistra hautatzean, lan-poltsa sortzeko. Nolanahi ere, langileen hautaketa osorik egokitu beharko litzaioke Langileen Estatutuan finkatuta dagoen prozedurari.

- Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea

2014an, aitortutako ondasun arruntak eta zerbitzuak 80.086 eurokoak izan ziren. Zehazki, ehuneko 68 jantokiko gastuak izan ziren, eta gainerakoak, aholkularitzako gastuak, materialenak, ordenagailuen mantentze-lanenak, telefonoenak eta aseguruak.

Gastu hauek aztertu ditugu:

Kontzeptua	2014ko gastua
Jantokia	54.145
Kontabilitate-aholkularitza	1.684
Lan-aholkularitza	2.020
Nafarroako Ikastolen Elkarteko kuota	6.497
Ordenagailuen mantentze-lanak	3.782

Oro har, aztertutako datuak justifikatuta daude, ordainduta eta behar bezala kontabilizatuta.

Jantokiko zerbitzua kanpoko enpresa batek ematen du. 2013an, zuzenean kontratatu zen, adjudikatzeko prozedura irekia izapidetu gabe, nahiz eta, kontratuaren balio zenbatetsia kontuan hartuta, hori egitea zegokion. Menuaren adjudikazio-prezioa 4,30 eurokoa izan zen, BEZa barne.

VI.3.3. Diru-sarrerak

Diru-sarrera hauek aztertu ditugu:

- Jantokiko diru-sarrerak

Jantokiak 2014an izan zituen diru-sarrerak 62.510 eurokoak izan ziren. 2014ko ekitaldiak hartzen dituen bi ikasturteetarako finkatutako prezioen arabera likidatu ziren –prezio desberdinak dira Elizondoko ikasleentzat eta Haraneko gainerako tokietakoentzat–. Horri dagokionez, ikastetxe publikoetako irizpidearen antzeko bati jarraitzen dio Ikastolak: ikastetxe publikoetan ikasle garraiatuek tarifa murriztua ordaintzen dute, Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen baitu haien kostua. Baztango Ikastolak, ordea, ez du diru-laguntzarik jasotzen, Haraneko ikasle garraiatuei aplikatzen dizkien tarifa murriztuak finantzatzeko.

2014/2015 ikasturtean, jantokiko tarifak hauek izan ziren: 83 euro hilean Elizondoko ikasleen kasuan, eta 43,50 euro hilean gainerako tokietako ikasleen kasuan.

Jantokiko zerbitzuak 14.125 euroko defizita eragin zuen 2014an Ikastolan, kontuan hartzen baditugu zerbitzuaren diru-sarrera eta kostu zuzenak.

- Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza

2014ko ekitaldian, Baztango Ikastolak Nafarroako Gobernuaren 578.987 euroko diru-laguntza eskuratu zuen, Haur Hezkuntzako hiru unitate eta Lehen Hezkuntzako sei unitate finantzatzeko – Nafarroako Gobernuaren 2012ko uztailaren 4ko Akordioak onartutako moduluen arabera– eta bai 17.239 euro ere, heziketa bereziko premiei erantzuteko ere.

Baztan Ikastola udal ikastola publiko bakarra da eta 2015. urtea arte ez zuen finantzaketa-hitzarmenik Nafarroako Gobernuarekin, hark diruz laguntzen zuen arren.

Patronatuko aktetatik ondorioztatzen denaren arabera, 2009-2010 ikasturtea eta 2013. urteko laugarren bihilabetekoa bitartean Ikastolak kobratu zuen diru-laguntzak Haur Hezkuntzako bi unitate finantzatzeko zituen, eta ez ezarrita zituen hirurak. Udalak Arartekoaren aurrean aurkeztu zuen kexa baten ondorioz, 2013ko laugarren bihilabetekotik aurrera egoera erregularizatu egin zen.

Gomendatzen dugu:

- *Udal Ikastola erakunde autonomoaren izaera aztertzea eta, egokia bada, indarrean dagoen araudira egokitzea.*
- *Finantza-erakundeetan diruzaintzako funtsak erabili ahal izatea baimentzea sinadura erkidetu eguneratuaren bidez.*
- *Plantilla organikoan onartu eta kaleratzea.*
- *Kontratuen Foru Legean jasota dagoen adjudikazio-prozedura izapidetzea, kontratuaren balio zenbatetsiaren arabera.*
- *Erabilzaileei ordainaraztea zerbitzuaren kostuari dagozkion jantokiko tarifak.*
- *Langileak sartzeko edo hartzeko, Estatutuan ezarrita dauden prozedurak aplikatzea.*

VI.4. FRANCISCO JOAQUIN DE IRIARTE ZAHAR ETA JUBILATUEN ETXEA

Francisco Joaquin de Iriarte zahar eta jubilatuen etxea erakunde autonomoaren gainean egingako erregulartasunaren fiskalizaziotik ateratako ondorio nagusiak adierazten dira ondoren, eta bai dagozkien gomendioak ere.

VI.4.1. Alderdi orokorrak

1983. urtean onartutako estatutuek eraentzen dute Zahar Etxea. 2015eko otsailean, Udalaren osoko bilkurak hitzartu zuen haien behin betiko aldaketa onetsi eta argitara ematea. Akordio horri helegitea aurkeztu zioten, eta helegitea ebatzi baino lehen, 2015eko apirilean, osoko bilkurak adostu zuen ordezte, hasierako onespenerik ez zuelako eta ez zutelako jendaurrean jarri. 2015eko azaroaren 26ko osoko bilkuran, estatutuen aldaketa bertan behera uztea erabaki zen. Erabakiaren aurka aurkezturiko helegitea ez da oraindik argitu.¹

2015eko otsaileko Udalaren osoko bilkuraren akordioaren kontra aurkeztu zen gora jotzeko helegitearekin lotuta Nafarroako Administrazio Auzitegiak eman zuen Ebazpenean, objektua gerora galtzeagatik baztertu zuenean, adierazi zuen Zahar Etxea zerbitzuen fundazio publiko moduan eratu zela –egun, figura hori tokiko erakunde autonomo batenaren baliokidea da– eta, horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak haren araubidea alda dezakeela, aplikatzekoak diren lege-eta araudi-xedapenen ondoriozkoak diren mugak baino ez dituela.

Zahar Etxearen organo gorena Batzordea edo Patronatua da, eta bederatzi kidek osatzen dute: alkateak eta Udaleko bi zinegotzik, Elizondo eta Gartzaingo erretoreek, eta Baztango herri-tarren arteko lau kidek. Batzordea da Zahar Etxearen administratzailea, baina Udalaren fiskalizazioaren eta kontrolaren mende dago.

Zahar Etxeko gerakina, 2014ko ekitaldian, 97.174 eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino ehuneko 52 txikiagoa, eta 2014ko aurrekontu-aldaketak finantzatzeko erabili zen. 2014ko abenduaren 31n, funts likidoak 177.190 eurokoak ziren.

Finantza-ibilgetuaren saldoa 111.759 eurokoa da, eta 862.883 euroko zenbatekoa duten errenta finkoko inbertsioek eta, beste finantza-inbertsio iraunkor batzuen kontzeptuan, 751.123 euroko saldo negatiboak eratzen dute.

¹ Alkate ohiaren alegazioengatik aldatutako paragrafoa.

VI.4.2. Aurrekontua betetzea

Zahar Etxearen aurrekontua, 2014ko ekitaldirakoa, hasiera batean onetsi zen 2014ko otsailaren 27an egin zen osoko bilkuran, eta diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak 111.622 eurokoak ziren. Ondoren dauden tauletan erakusten da aurrekontuaren betetzea:

Gastuak

Kontzeptua	Hasierako kreditua	Aldak.	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen %
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	111.622	0	111.622	107.474	96
Inbertsio errealak	0	359.827	359.827	301.429	84
Gastuak, guztira	111.622	359.827	471.449	408.903	87

Diru-sarrerak

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetzearen %
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	8.700	0	8.700	24.755	285
Transferentzia arruntak	102.922	0	102.922	90.600	88
Ondare bidezko diru-sarrerak	0	0	0	321	
Kapital-transferentziak	0	165.735	165.735	190.204	115
Diruzaintza-gerakina	0	194.092	194.092	0	0
Diru-sarrerak, guztira	111.622	359.827	471.449	305.880	65

Zahar Etxearen diru-sarrerak, 2014an, 305.880 eurokoak izan ziren, 2013koak baino ehuneko 9 handiagoak. Diru-sarrera horien ehuneko 62 kapital-transferentzietan dagozkie, uholdeekin lotutakoak; ehuneko 30, transferentzia arruntei; eta ehuneko 8, itzulketa eta zozketengatik diru-sarrerei.

Aseguruen partzuergoaren 165.735 euroko diru-sarrerak nabarmendu behar dira (kapital-transferentziak) eta bai Udalak egindako 72.000 euroko ekarpena ere (transferentzia arruntak), funtzionamendu gastuetarako.

2014an, Zahar Etxearen gastuak 408.903 eurokoak izan ziren, eta haietatik ehuneko 74 inbertsioei egokitu zitzaizkien, eta gainerakoak, ondasun arrunt eta zerbitzuei. 2014ko gastuak, 2013koen aldean, ehuneko 233 handiagoak izan ziren. Emendatze adierazgarri hori uholdeen eraginez 2014an egin behar izan ziren 293.715 euroko inbertsioen ondoriozkoa izan zen.

Lagin hau aztertu da:

Gastuak

Kontzeptua	2014ko gastua
Kudeaketa-gastuak	86.205
Aseguruak	7.895

Diru-sarrerak

Kontzeptua	2014ko diru-sarrera
Aurrekontu itxietako itzulketa	15.285
Transferentzia arruntak, Zahar Etxea kudeatzeko	8.678
Uholdeen kalteengatik egin beharreko inbertsioetarako emaitzak	23.564
Aseguruen partzuergoaren kalte-ordaina uholdeengatik	165.735

Oro har, bai gastuak bai eta diru-sarrerak ere justifikatuta eta behar bezala kontabilizatuta daude.

- 2009ko uztailaren 1az geroztik, kanpoko enpresa batekin kontratatuta dago Zahar Etxearen kudeaketa. 2014ko urtarrilaren 27an, Batzordeak hitzartu zuen beste bost urterako luzatzea kontratua. Dena den, luzapen-akordio horri helegitea aurkeztu zioten, Nafarroako Administrazio Auzi-

tegian, argudiatuta kontratua ez zela esleitu egokia zen prozeduraren arabera. Ez dakigu ziur helegitea ebatzi duten.

Ez dago jasota inbentarioa, subrogatutako langileen zerrenda eta azterlan ekonomikoa, kontratuari atxiki behar zaizkionak.

Egoiliarren tarifengatik Zahar Etxeko diru-sarreraren ehuneko 3ko kudeaketa-kanona ezarri zen, eta ekitaldiko emaitza ekonomikoa banatu zedila esleipendunaren eta jabearen artean, ehuneko 80ko eta 20ko proportzioan, hurrenez hurren.

Udalak 8.678 euroko diru-sarrerak izan ditu, 2013ko emaitza ekonomikoko ehuneko 20ari dagozkionak, eta aitortu eta kobratu gabe daude 13.745 euro, behar ez bezalako gastu orokorrak kenduta, emaitza den mozkinaren ehuneko 20ari dagozkionak.

Era berean, 2014an, 15.285 euroko diru-sarrera kontabilizatu eta kobratu zen, 2009. eta 2013. urteen artean Zahar Etxea kudeatzeagatik kanona erregularizatzeagatik.

- Aseguruen Kontentsazio Partzuergoaren dokumentu bat dago jasota, eta hartan adierazten da infra-asegurua dagoela bai edukitzaileari eta bai edukiari dagokionez. Zahar Etxeak 409.190 euroko zenbatekoaren arabera kalteak erreklamatu zituen, 384.035 euroko balorazioa egin zen eta haien gainean 165.735 euroko kalte-ordaina kalkulatu zen, Zahar Etxearen alde.

Zahar Etxeko aseguruaren estaldura 2014ko irailean eguneratu zen, urte horretako uztailean gertatu ziren uholdeen ondotik. Jarraian dagoen taulan, 2013. eta 2014. urteetan aseguruan hartutako estaldurak erkatzen dira:

Estaldura	2013	2014
Edukitailea	2.236.161	7.500.000
Edukia	447.232	600.000
Kalte estetikoak	0	1.510
Aseguru-prima	4.041	7.895

Ez zen egin publizitaterik gabeko prozedura negoziatua, gutxienez hiru eskaintza eskatuta, nahiz eta kontratuen legeriak hori egiteko ezartzen duen, laguntza-kontratuaren balio zenbatetsia 6.000 eurotik gorakoa den kasuetan.

Gomendatzen dugu:

- *Zahar Etxearen kudeaketa-kontratuari subrogatutako langileen zerrenda eta azterlan ekonomikoa atxikitzea.*
- *Zahar Etxearen ondasunen inbentario baloratu eta eguneratua onartzea.*
- *6.000 eurotik gorako balio zenbatetsia (BEZa kanpo) duten laguntza-kontratuak esleitzeko kontratuen legerian jasota dagoen kontratatze-prozeduraren izapideak bideratzea.*
- *Behar ez bezalako gastu orokorrak kentzearen ondorioz Zahar Etxearen mozkina emendatzearen ehuneko 20 kobratzea izapidetzea.*
- *Azttertzea eta, egokia bada, finantza-ibilgetuaren saldoa araztea.*
- *Dokumentuak artxibatzea hobetzea.*

VI.5. "GILTXAURDI, S.L." SOZIETATEA

"Giltxaurdi, S.L." udal sozietatea 2012an eratu zen, Udalak osorik harpidetu zuen 3.000 euroko kapital batekin.

Egun, udal sozietate hori Giltxaurdi kirol instalazioak kudeatzeaz arduratzen da (kirol instalazio horiek, udal sozietatea sortu aurretik, kanpoko kontratatzearen bidez kudeatzen ziren, enpresa pribatu batekin). Kudeaketan egindako aldaketak berekin ekarri zuen udal sozietateak langileak subrogatzea. 2014an, Sozietateak 14 langile ditu, haietako bat kudeatzailea.

2014ko ekitaldian, Sozietateak izan zituen datu ekonomiko batzuk hauek izan ziren:

Kontzeptua	Zenbatekoa, 2014an
Diru-sarrerak, zerbitzuak emateagatik	259.386
Beste diru-sarrera batzuk	166.648
Ustiapeneko diru-sarrerak, guztira	426.034
Langile-gastuak	205.569
Hornidurak	22.701
Ustiapeneko beste gastu batzuk	159.260
Ibilgetuaren amortizazioa	3.542
Ustiapeneko gastuak, guztira	391.073
Ekitaldiaren emaitza	34.911

Zerbitzuak emateagatik eskuratutako diru-sarrerak, 259.386 euro 2014an, udal sozietateak antolatutako jardueren prezioei eta kirol instalazioak erabiltzeagatik prezioei egokitu zitzaizkien. Beste diru-sarrera batzuen kontzeptuan (166.648 euro), barnean hartuta daude Udalaren ekarpenaren 91.000 euro eta aseguruak ordaindutako 74.570 euro, uholdeek, haizeteak eta txingorerauntsiak eragindako kalteengatik.

Ustiapeneko beste gastu batzuen kontzeptuan, 159.260 euro 2014an, barnean hartuta daude 56.088 euro, uholdeekin lotutakoak, eta bai gas- eta elektrizitate-gastuak ere, garrantzitsuenen artean.

2014ko ekitaldiko emaitza 34.911 eurokoa izan zen; 2013koan lortutakoa, ordea, 11.565 euroko saldo negatiboa izan zen.

2014ko ekitaldian, gasaren kontsumoan ehuneko 12ko deskontua lortu zen. Era berean, langileen gastuetan aurrezteak izan zen, batetik, mantentze-lanetako teknikari baten lanaldia murriztu zelako, eta, bestetik, hura ez zelako ordezkatu hiru hilabeteetan.

Hiru langileren ordainsariak aztertu dira. Egiaztatu da 2012ko hitzarmen kolektiboan (indarrean, 2014an) ezarrita dagoenarekin bat datozela, oro har. Hitzarmen kolektibo hori kirol zerbitzuak eta ekipamenduak kudeatzen dituzten enpresa eta erakunde pribatuena da.

Udalak 91.000 euro (gehi BEZa) eman dizkio udal sozietateari, Haraneko ikastetxeak eta klubak sartu ahal izateko, Udalari saldutako bonuen kontzeptuaren arabera. Dena den, ez dago zehaztuta zenbat bonu saltzen diren eta haien prezioa, eta ez da ezaguna bonuen onuradunek kirol instalazioetan egiten duten erabilera. Ekarpen hori transferentziaren kontzeptuan sartu beharko litzateke, ez baitago jasota zerbitzuen kontraprestazioa edo ordaina dagoenik.

Instalazioetako erabiltzaileen diru-sarreraren lagin batean, egiaztatu dugu onartuta dauden tarifak aplikatzen direla. Oro har, helbideratutako ordainagirien itzulketak eskudirutan kobratzen dira. Halaber, egiaztatu dugu jasota daudela eskudirutan jasotako eta aldiaren behin finantza-erakundeetan sartutako bilketa kontrolatzeko prozedurak.

Gainera, egiaztatu dugu, oro har, uholdeengatik 56.088 euroko gastuak justifikatuta daudela. Uholdeek eragindako kalteei zegokienez, aseguruaren partzuergoak eman zuen kalte-ordaina 60.367 eurokoa izan zen, eta enpresak 2015ean egin zituen gastuak hartu zituen kontuan.

Haraneko ikastetxeak eta klubak sartzeko bonuak saltzeagatik Udalak egiten duen ekarpena erregulatzea gomendatzen dugu.

VI.6. AROZTEGIA PLANA

Aroztegia Plana esaten diotenaren arabera, aurreikusita dago Lekarozko Aroztegia Jauregia alderdian hotel-, kirol- eta egoitza-eremu bat garatzea. Zehazki, asmoa da hotel-bainuetxe-spa bat eraikitzea, 135 logelakoa, goi mailako kalitateko jatetxe bat, bederatzi zuloko golf zelaia, golf-eta lorezaintza-eskolekin, eta 228 etxebizitza, 45 hektarea inguruko eremu batean.

Planak, ordea, kontrako jarrera eragin du Baztan haraneko herritarren artean. Administrazioa-erikiko auzi helegitea aurkeztu da Nafarroako Gobernuaren 2015eko maiatzaren 20ko Akordioaren aurka, Udalez Gaindiko Plan Sektoriala onartu baitzuen. *Sub iudice* edo epailearen esku da goenez, erakunde honek ez du iritzia azalduko Aroztegia Planarekin lotuta bideratutako hirigintza-jarduketek legezketasunari buruz, eta kronologikoki azaltzera mugatuko da.

Aroztegia Plana 2008an hasi zen, espedientean dauden datuetatik ondorioztatzen denez, sustatzaileak kontsulta bat egin zionean Nafarroako Gobernuari. Zehazki, Udalez Gaindiko Plan Sektoriala izapidetzea bidezkoa zen kontsultatu zuen, antolamendurako, asmoa baitzen lursail batzuk urbanizagarri izendatzea, golf zelai bat, hotela eta etxebizitzak kokatu ahal izateko Lekarozen.

Nafarroako Gobernuaren Lurralde Antolamenduko Zerbitzuak egindako txosten batean, adierazi zen, lehen batean, ez zela inguruabarririk ikusten proposamena Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren bidez izapidetzea eskatzeko eta, hori zela-eta, Baztan haraneko Udalak era arrazoituan figura hori proposatuko balu izan ezik, Udal Planari egindako egiturazko aldaketa puntual moduan izapidetu behar zela.

2009ko uztailaren 2an, "Baztango Udalaren eta Palacio de Aroztegia S.L. sozietatearen arteko konpromisoen proposamena, Aroztegia Jauregia alderdiaren hirigintza-eraldaketarako jarduketek baldintzak arautzeko" izeneko dokumentua sinatu zuten Lekarozen.

Udalak aldaketaren hasierako onespina eta behin-behinekoa izapidetu eta gero, Nafarroako Gobernuaren Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza kontseilariaren irailaren 13ko 162/2010 Foru Aginduaren bidez, Udalaren hirigintza-planeamenduaren egiturazko aldaketa onetsi zen behin betiko.

Aldaketa hori onartzeak berekin ekarri zuen plan partziala izapidetzea, sustatzailearen eskariz, eta horren behin betiko onespina 2012ko apirilaren 2ko NAO-n eman zen argitara. Udalak eskatu zuen tresna hori ofizioz berrikusteko, baliogabetzeko helburuarekin. Nafarroako Kontseiluak adierazi zuen ez zela egokia ofizioz berrikustea, Aroztegia Jauregia alderdiko plan partzialaren behin betiko onespina baliogabetzeko arrazoia zela medio.

2013ko irailaren 27an, Justizia Auzitegi Nagusiak irailaren 13ko Foru Agindua indargabetu zuen, Udal Planaren egiturazko aldaketa behin betiko onetsi zuena. Arrazoia izan zen hirigintza-jarduketarako eremuaren barnean lursail erre batzuk sartu zirela ea 13/1990 Foru Legeak, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzkoak, debekatu egiten duela erretako mendien edo oihan lursailen erabilera-aldaketa izapidetzea.

Sustatzaileak helegitea aurkeztu zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren kontra, kasazioko errekurso baten bidez, baina, 2015eko ekainaren 25eko epaiaren bitartez, Auzitegi Nagusiak ezezkoa eman zion, eta, horrenbestez, egiturazko hirigintza-aldaketa behin betiko baliogabetuta gelditu zen eta, ondorioz, plan partziala automatikoki baliogabetu zen.²

2014ko uztailaren 30ean, sustatzaileak Aroztegia Jauregia alderdirako Udalez Gaindiko Plan Sektoriala aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuaren Sustapen Departamentuan. Hain zuzen, eskatu zuen izapideak bideratzea behin betiko onartu arte.

Plan sektorial bat udalez gaindikotzat izendatzea Nafarroako Gobernuari baino ez dagokio.

2014ko abenduaren 23an, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Aroztegia Plana Udalez Gaindiko Plan Sektorial izendatzea, eta, era berean, 45 eguneko epea ematea jendaurrean jartzeko eta Udalari entzunaldia emateko.

² Alkate ohiaren alegazioengatik aldaturiko paragrafoa.

Epe horretan, Baztango Udalaren alegazioak, Lekaroz herriarenak, Baztanen Garapenerako Elkartearenak, "Aroztegia eta gero zer?" plataformarenak eta Sustrai Erakuntza Fundazioarenak jaso ziren. Alegazioak ebatzi ziren, sustatzaileari eskatu zitzaion testu bategin bat aurkezteko, barnean hartuko zituena alegazioen txosteneko kontsiderazio tekniko jakin batzuk eta bai sektore txostenenak ere, eta, Lurralde Antolamenduko Batzordearen aldeko irizpenarekin, proposamena Nafarroako Gobernura igorri zen, behin betiko onespena lortzeko. 2015eko maiatzaren 20an onetsi zen betiko.

2015eko uztailaren 24an, Baztan haraneko Batzar Nagusiak eta Lekaroz herriak eskatu zioten Nafarroako Gobernuari balio gabetu zezala Udalez Gaindiko Plan Sektoriala, baina ezezkoa eman zien eskaera horiei.

Sustrai Erakuntza Fundazioak administrazioarekiko auzi helegitea aurkeztu du, Udalez Gaindiko Plan Sektoriala onartzea ekarri zuen 2015eko maiatzaren 20ko Gobernuaren Akordioaren kontra.

Aroztegia Planaren lurralde-esparrua osorik garatzen da Baztanen udal barrutiaren barnean eta Baztango Udalaren hirigintza-jarduerari eragiten dio. Izan ere:

- Udalez Gaindiko Plan Sektorialean dauden erabakiek Baztango Udala lotesten dute, hirigintza-plangintza egokitu beharko baitu Plan Sektorialari dagozkion erabakietara.
- Udalari laga beharko zaio ondasun higiezin salerosketarako bideratu daitekeen irabazizko aprobetxamenduaren 100eko 10, kargarik gabe. Udalak jasoko ditu, doako lagatzearen arabera, 5.608,13 aprobetxamendu-unitate (AU).
- Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren barnean herri-lursail bat dago. Plan Sektorialaren behin betiko onespeneren eta lurzorua sektorizatutako urbanizagarri izatera igarotzearen ondorioz, lursail hori ondare izaera izatera igaroko da eta Baztango Udalak parte hartuko du jarduketan, gainerako jabeek dituzten hirigintza eskubide eta betebeharrak berberekin.

Udal lursailaren urbanizazio-lanetarako aurrekontu zenbatetsia 78.794 eurokoa da, eta Udalak ordaindu beharko du, jabea den heinean, eta horren truke 807,32 AU jasoko ditu.

Aprobetxamendu-unitate bakoitzaren kostua 384,52 eurokoa dela kalkulatu da. Horrenbestez, Baztango Udalari dagokion aprobetxamendu osoa 2.466.869 eurokoa dela kalkulatu da.

Baztango Udalaren Plan Orokorra behin betiko onartu zuen lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren gaian eskumena zuen departamentuak 2001eko urriaren 24an.

2014ko ekitaldian, 184.205 euroko aurrekontu-aldaketa bat onartu zen Udalaren Plan Orokorra idazteko. Nafarroako Gobernuak emandako 144.867 euroko diru-laguntza baten bidez finantzatu behar zen aldaketa. Plana idazteko gastua ez zen gauzatu, ez eta aurreikusitako diru-laguntza ere.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean
Asunción Olaechea Estanga, lehendakaria

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO ALEGAZIOAK**NAFARROAKO KONTUEN GANBRAK BAZTANGO UDALEKO 2014KO KONTUEN INGU-
RUKO TXOSTENAREN ALEGAZIOA**

Nik, Garbiñe Elizegi Narbarte, Nafarroako Kontuen Ganerak egindako txostena ikusirik, eta kasu honetan Kontuen Ganberak azteztzen duen urtean, hau da 2014an, Baztango alkatea izan nintzenez, hurrengo alegazioa aurkezten dut:

- 1) Txostenaren 41. Orrialdean VI.6. puntuan. Aroztegiako proiektuari dagokionez sustatzaileak helegitea aurkeztu zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren kontra, kasazioko errekurso baten bidez. Kasu honetan Nafarroako Gobernuak ere agertu zen helegite honetan sustatzaileen alde eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren kontra. Epaia (Auzitegi Gorenekoa) 2015eko ekainaren 25ekoa da. Beraz, Nafarroako Gobernuak Udalez Gaindiko Plan Sektoriala tramitatu eta onartu zuen Auzitegi Goreneko epaia atera baino lehen, hau da aurreko proiektuaren legezotasuna argitu gabe proiektu berri baten onarpena eman zuen.

Alegazio hau kontutan hartuko duzuelakoan,

Adeitazunez,

Garbiñe Elizegi Narbarte



BAZTAN BALLEKO UDALA
 AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y
 UNIVERSIDAD DE BAZTAN (Nafarroa - Navarra)

MEREZIMENDU TURISTIKOARI BRONTZEZKO SARIA
 PLACA DE BRONCE AL MERITO TURISTICO

HERRIAK - LUGARES: ELIZONDO (BALLEKO UDALETXEA)
 ALMANDOZ, ANIZ, ARIZKUN, ARRAIOZ, AZPILKUETA, BERROETA,
 ZIGA, ELBETE, ERRATZU, GARTZAIN, IRURITA, LEKAROZ
 AMAIUR / MAYA eta ORONOZ.

Joseba Otondo Bikondoa naizen honek, Baztango Udaleko Alkateak, Nafarroako Kontuen Ganberak emandako Baztango Udalari buruzko behin-behineko txostena (2014ko ekitaldia) ikusita, ondorengo

Joseba Otondo Bikondoa, Alcalde del Ayuntamiento de Baztan, visto el informe provisional de fiscalización sobre el Ayuntamiento de Baztan, ejercicio 2014, de la Cámara de Comptos, formula las siguientes

ALEGAZIOAK

ALEGACIONES

aurkezten ditut:

Dokumentu atxiki moduan aurkezten da Baztango Udaleko Idazkariaren ziurtagiria Fco. Joaquin Iriarte Zahar-etxeke Patronatuak 2014ko azaroaren 11an hartutako akordioari buruzkoa.

Se presenta como documento adjunto el certificado de la Secretaria del Ayuntamiento de Baztan en relación al acuerdo adoptado por el Patronato de la Residencia de Ancianos Fco. Joaquín Iriarte el 11 de noviembre de 2014.

Hori dela eta, honako idatzia aurkeztutzat jotzea, onar dadila eta txostenean modurik egokienean dagokion isla izatea eskatzen dut.

Es por ello que pido se tenga por presentado este escrito, se admita y tenga su reflejo en el informe de la manera más oportuna.

Baztanen, 2016ko maiatzaren 19an

En Baztan, a 19 de mayo de 2016

ALKATEA/ EL ALCALDE

Joseba Otondo Bikondoa





BAZTANGO FRANCISCO JOAQUIN DE IRIARTE
ZAHARREN ETXEA

RESIDENCIA DE ANCIANOS Y JUBILADOS

FRANCISCO JOAQUIN DE IRIARTE
DEL VALLE DE BAZTAN



2014ko AZAROAREN 13ko EZ-OHIKO BILKURA
SESION EXTRA-ORDINARIA DE 13 DE NOVIEMBRE DE 2014

D. Florentino Goñi jn.:
Baztango Udaleko zinegotzia / *Concejal del Ayuntamiento de Valle de Baztan.*

D^a. M^a Isabel Olave and.:
Baztango Udaleko zinegotzia / *Concejal del Ayuntamiento de Valle de Baztan.*

D. José P. MENDIÓROZ FAGOAGA jn.:
Gartzaingo apeza / *Párroco de Gartzaín*

D. Javier AZPIROZ ALDUYEN jn.:
Elizondoko apeza / *Párroco de Elizondo*

D. M. Angel GOYENECHÉ ECHEVERE jn.:
Batzordekidea / *Vocal.*

D^a. M^a Pilar GOÑI MICHELENA and.:
Batzordekidea / *Vocal.*

D. CESAREO GARTXITORENA jn.:
Batzordekidea / *Vocal*

D. José M^a RIPA GARBISU jn.:
Batzordekidea / *Vocal*

Ez da bertaratu/ *No ha asistido:*

Baztango Zahar-Etxean, 2014.eko azaroak 13an, goizeko 13:00etan, Baztango Francisco Joaquín Iriarte Zaharren Etxeko Batzordea bildu zen ezohiko bilkura lehendabiziko deialdian egiteko asmoz, Garbiñe Elizegi Baztango alkate andrea batzordeburu zela, alboan alpatzen diren batzordekideak bertaraturik, idazkaritako Iulen Urbiola jn., Baztango Udaleko idazkaria, aritu zen. Halaber, bileran parte hartu zuten, hitzarekin baino botorik gabe, honako hauek: langileen ordezkariak.

En la Residencia de Ancianos de Baztan, sito en el Lugar de Elizondo, siendo las 13:00 h. del día 13 de noviembre de 2014, se reunió la Junta de la Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte del Valle de Baztan al objeto de celebrar sesión extraordinaria en primera convocatoria, bajo la Presidencia de D^a Garbiñe Elizegi Alcaldesa del Ayuntamiento del Valle de Baztan, con la asistencia de los miembros que al margen se indican, actuando como Secretario el del Ayuntamiento de Baztan D Iulen Urbiola. Así mismo, asisten a la reunión con voz pero sin voto: representantes de los y las trabajadores/as de la residencia.

La Sra. Presidenta manifestó que comenzaba la sesión, procediéndose seguidamente a tratar los asuntos comprendidos en el Orden del Día y siendo adoptados los acuerdos que a continuación se recogen.

Batzordeburu andreak bilkura hasiko zela adierazi zuen, jarraian Gal Zerrendan bildutako aferak eztabaidatzeari ekin zitzalon eta ondoren azaltzen diren honako akordio hauek hartu ziren.



1.-AURREKO AKTEN ONESPENA.**1.-APROBACIÓN ANTERIORES.****ACTAS**

2014/09/24ko ez-ohiko batzarreko akta aho batez berretsi da.

El acta de la sesión extraordinaria de 24/09/2014 es ratificada por unanimidad.

2.-AURREKONTUAREN MOLDAKETAK.**2.-MODIFICACIONES DEL PRESUPUESTO.****DEL****2.1 13.Zbkdun Aldaketa****2.1 Modificación nº 13**

Udal Kontu-hartzaileak "Sarrerak sortutako kredituen" aurrekontu-aldaketa azaldu du. Kontuhartzailearen txostena saio honetako espedientera atxikia geratzen da.

La Interventora Municipal explica la modificación presupuestaria de "crédito generado por ingresos" y cuyo informe queda adjunto al expediente de la presente sesión.

Behin aldaketa aztertutik, Francisco Joaquín de Iriarte Zahar-Etxeko patronatuak aho batez onetsi du.

Una vez examinada la modificación, el patronato de la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte la aprueba por unanimidad.

2.2 14.Zbkdun Aldaketa**2.2 Modificación nº 14**

Udal Kontu-hartzaileak "Aparteko kredituen" aurrekontu-aldaketa azaldu du. Kontuhartzailearen txostena saio honetako espedientera atxikia geratzen da.

La Interventora Municipal explica la modificación presupuestaria de "generado por ingresos" y cuyo informe queda adjunto al expediente de la presente sesión.

Behin aldaketa aztertutik, Francisco Joaquín de Iriarte Zahar-Etxeko patronatuak aho batez onetsi du.

Una vez examinada la modificación, el patronato de la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte la aprueba por unanimidad.

3.-2013KO KONTUETAKO PARTIDAREN BANAKAPENA. 629**3.-DESGLOSE DE LA PARTIDA 629 DE LAS CUENTAS DEL 2013.**

629. partidaren banakapenari buruz IDEA-k eginiko txostena aurkeztu da. Kontu-hartzailetza eta idazkaritzak azaldu duté txostena aztertuta ulertzen dutela bikoiztasunak daudela 629 partidak blitzen dituen kontzeptuetan eta Zahar Etxeko Patronatua eta IDEA-ren artean sinaturiko kontratuaren 5.1 estipulazioaren arabera araberako ordainsarrietan, eta baita ere, hainbat kontzeptu argitzearen beharra dagoela, baita ere gainean egin daltekeen interpretazio zabalarengatik.

Se presenta el informe realizado por IDEA en relación al desglose de la partida 629. Intervención y secretaria explican que analizado el informe presentado entienden que existen duplicidades entre los conceptos que abarca la partida 629 y la retribución que se realiza al adjudicarlo en base a la estipulación 5.1 del contrato firmado entre el Patronato de la Residencia e IDEA, así como la necesidad de que se aclaren ciertos conceptos debido a la interpretación amplia que cabe de los mismos.

Behin txostena aztertutik eta kontu-hartzailetza eta idazkaritzaren parte hartzea aditutik, Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko Patronatuak onartu du.

Una vez examinado el informe y escuchado intervención y secretaria, el patronato de la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte acuerda:

Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzari

Solicitar a Secretaria e Intervención la



txosten bat egitea eskatzea, bikoiztuta dauden kontzeptuak biltzen dituen, eta horren arabera IDEA-ri eskatzea ordaindutako kopuruen erregularizazioa.

elaboración de un Informe donde se recoja que conceptos están duplicados y en base al mismo requerir a IDEA la regularización de los importes abonados.

4.-IDEA ENPRESAREN 2013KO SUPERABITA.

4.-SUPERÁVIT DEL 2013 DE LA EMPRESA IDEA.

Lehendakaritzak azaldu du kontratuaren arabera, 5.4 estipulazioak dioenez "Urte naturalari dagokion zerbitzuaren ustiapenaren urtealdi ekonomikoaren emaitza adjudikaziodun eta jabetzaren artean banatuko da % 80 eta % 20eko proportzioan, hurrenez hurren."

Presidencia explica que según el contrato, estipulación 5.4 "El resultado económico del ejercicio, referido a año natural, de la explotación del servicio será distribuido entre el adjudicatario y la propiedad en la proporción de 80%, 20% respectivamente."

Adierazitakoa aintzat harturik, Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko patronatuak onartu du:

Teniendo en cuenta lo expuesto, el patronato de la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte acuerda:

Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko erakunde autonomoarekin lizenpeturiko kontratuaren 5.4 estipulazioa ezarrita IDEA-ri erreklamatzeko 2014 urtea amaitu aitzinetik 2013an lorturiko superabitaren % 20a ordaintzea.

Reclamar a IDEA que en aplicación de la estipulación 5.4 del contrato suscrito con el organismo autónomo municipal Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte abone el 20% del superávit obtenido en el 2013 antes de la finalización del año 2014.

Erabaki hau jakinarazi daklela interesdunei horren jakinaren ganean egon daltezen eta haren ondorioetarako.

Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efecto.

5.-ASEGURUA.

5. - SEGURO.

5.1 Lehendakaritzak jakinarazten du IDEA-rekin indarrean dagoen kontratuan, 7.1.5 estipulazioan ezartzen dela esleipenduna behartuta dagoela Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko berarizko arrisku-aunitzeko aseguru kontratatzea, eta ez dutela horrela egin, kudeatzen dituzten egoitza guztietarako erantzukizun zibileko aseguru bat bertzerik ez baltute. Ez-betetze horrek ekarri du Zahar Etxean uholdeek sorturiko galerak soilik patronatuak bere gain hartzea. 352.112,31 €tan zenbatetsitako kalteetatik aseguruaren kontsultzioarengandik 165.735 € hartu ditugu, 186.377,31 € soilik Patronatuaren geldikinaren gain gelditu dituzte. Hau ez zen gertatuko IDEA-k, kontratuan ezartzen den bezala,

5.1 Presidencia informa que en el contrato vigente con IDEA, en la estipulación 7.1.5 se establece que el adjudicatario está obligado a la contratación de un seguro multi-riesgo específico para la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte cosa que no han realizado dado que solo tienen contratado un seguro de Responsabilidad Civil para todas las residencias que gestionan. Este incumplimiento ha conllevado que los daños generados por las inundaciones en la residencia solo hayan sido cubiertos por el seguro del Patronato. De unos daños valorados en 352.112,31€ hemos recibido del consorcio de seguros la cantidad de 165.735€ quedando la cantidad de 186.377,31€ a cargo exclusivamente del remanente del Patronato. Esta realidad



Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko berriazko arrisku-aunitzeko aseguruak kontratatatu izan balu.

Isabel Olave: 2012an Lehendakariak jakinarazi zion Patronatu honi enpresak zuen aseguruak egokia zela eta horretan oinarriturik ni ez naiz ardurapeko sentitzen.

Garbiñe Elizegi: Ez dut inolaz hori ukatu, idazki bat aurkeztu ziguten eta haren arabera jakinarazi zitzaigun egokia zela baina uholdeekin agertu da ez dela horrela. Nahiz duzuna egiteko libre zara baina denek baditugu geure erantzukizunak, bakoitzak bere botoarekin, botoa norberarena da. Orain badakigu ez dutela betetzen eta ez-betetzea erreklamatu behar da, batetik dirua eta bertetik kontratuak ezartzen duen aseguruaren kontratazioa.

Isabel Olave: ez litzateke hobe batetik aseguruaren kontratazioa eskatzea eta bertetik kalteen gaia aztertzeke bilera-deia egitea?

Garbiñe Elizegi: Ulertzen dut geuk beharko genuela kalte guztiak exijitu.

Isabel Olave: Kalteen % 100a exijitzea ongi iruditzen zait baina bilera baten bidez egin dezakegu.

Adierazitakoa kontuan izanda, Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko patronatuak aho batez onartu du:

1.- IDEA Innovación y Desarrollo Asistencial enpresari 186.377,31 € errekeritzea, hori baita 2014ko uztailaren 4ko uholdeetako kalteen galeren eta Patronatuaren aseguruak ordaindutakoaren alde.

2.- Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko Erakunde Autonomoarekin zenpeturiko kontratuaren 7.1.5 estipulazioa beteaz IDEA-ri errekeritzea Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko berriazko arrisku-aunitzeko aseguruak kontratatatu dezala.

3.- Akordio honen jakinarazpena jaso eta hamaik eguneko epean Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko berriazko

hubiera sido diferente si IDEA hubiera contratado el seguro multi-riesgo específico para la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte tal y como era su obligación según contrato.

Isabel Olave: *En 2012 Presidencia informó a este Patronato que el seguro que tenía la empresa era el correcto y en base a eso yo no me siento responsable.*

Garbiñe Elizegi: *Eso no lo he negado nunca, se nos presentó un documento y sobre el mismo nos informaron que era correcto pero con las inundaciones resulta que no. Eres libre para hacer lo que quieras pero todos tenemos nuestra responsabilidades, cada uno con su voto, el voto es personal. Ahora sabemos que no cumplen y hay que reclamar el incumplimiento, por un lado el dinero y por el otro la contratación del seguro que establece el contrato.*

Isabel Olave: *¿No sería mejor requerirles la contratación del seguro por un lado y por el otro convocar una reunión para tratar el tema de los daños?*

Garbiñe Elizegi: *Entiendo que nosotros deberíamos exigir todos los daños.*

Isabel Olave: *Exigir el 100% de los daños me parece correcto pero lo podemos hacer mediante una reunión.*

Teniendo en cuenta lo expuesto, el patronato de la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte por unanimidad acuerda:

1.- *Requerir a IDEA Innovación y Desarrollo Asistencial la cantidad de 186.377,31€ que es la diferencia resultante de los daños sufridos por las inundaciones del 4 de julio de 2014 y el dinero abonado por el seguro del Patronato.*

2.- *Requerir a IDEA que en cumplimiento de la estipulación 7.1.5, del contrato suscrito con el Organismo Autónomo Municipal Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte, contrate un seguro multi-riesgo específico para la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte.*

3.- *En el plazo de 10 días a contar a partir de la recepción del presente acuerdo se deberá presentar por el*



arrisku-aunitzeko aseguruaren polizaren kopia aurkeztu beharko da Udaleko erregistroan.

4.- Erabaki hau jakinarazi dakiele interesdunel horren jakinaren gainean egon daitezten eta haren ondorioetarako.

5.2 Lehendakaritzak uholdeak eta gero ikusitakoa eta Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko asegurua iraila honetan Iraungi zela kontuan harturik jakinarazten du komeni dela horren estaldura handitzea.

Adierazitakoa aintzat harturik, Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko patronatuak onartu du:

Zahar Etxeko aseguruaren estaldura handitzea, hala edukitzalle nola edukian, MAPFRE-k aurkezturiko dokumentuan bildurliko zehaztapenen arabera.

registro del Ayuntamiento de Baztan copia de la póliza de seguro multi-riesgo específico para la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte.

4.- Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efecto.

5.2 Presidencia informa que teniendo en cuenta lo visto tras las inundaciones y visto que el seguro de la Residencia expiraba este septiembre es conveniente aumentar la cobertura del mismo.

Teniendo en cuenta lo expuesto, el patronato de la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte por unanimidad acuerda:

Aumentar la cobertura del seguro de la Residencia tanto en continente como en contenido según los términos contenidos en el documento presentado por MAPFRE.

6.-ESTATUTUEN MOLDAKETA.

Lehendakaritzak jakinarazi du Udaletik Zahar Etxeko estatutuak aldatzera begira prozedurari hasiera emanen zaiola, berarek Baztango errealitate sozialari egokitzeko.

Francisco Joaquín de Iriarte Zahar Etxeko Patronatua jakinaren gainean gelditzen da.

6.-MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS.

Presidencia informa que desde el Ayuntamiento se va iniciar procedimiento de cara a la modificación de los estatutos de la Residencia de cara a adecuarlos a la realidad social de Baztan.

El patronato de la Residencia Francisco Joaquín de Iriarte se da por enterado.

7.-GALDE-ESKEAK.

Florentino Gofil: Jakinarazten du Zahar Etxean langile bat kontratatu dela eta patronatua ez jakitun dela kontratazio horretarako erabili diren irizpideetaz.

Javier Azpiroz: Carmen Urtasunen herentziaren egoerataz galdetu du.

Idazkaria: Momentuz ez da deus ere egin.

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Florentino Gofil: Informa que en la Residencia se ha contratado un nuevo trabajador y el patronato es desconocedor de los criterios usados para esa contratación.

Javier Azpiroz: Pregunta sobre el estado de la herencia de Carmen Urtasun.

Secretario: De momento no se ha hecho nada.

eztabaidatzeko gai gehiagorik ez Y no habiendo más asuntos que tratar,



dagoenez, jasota gera dadin eta ondorengo ondorioetarako honako Akta hau legezkoa egiten da, bilkura hasieran adierazitako egunean, 14:30ean amaiera emanaz, alkate-udalburuaren oniritzia izanik eta zigilaturik, neuk idazkariak fede emanda. Elizondon, Baztanen, 2014.eko azaroak 13.

para que conste y para sus efectos oportunos, se levanta la presente Acta, finalizando la reunión a las 14:30 h. del día citado al comienzo, con el visto bueno de la alcaldesa-presidenta y sellada, doy fe yo, el secretario. En Elizondo, Baztan, a 13 de noviembre de 2014.

ONIRITZIA / Vº Bº

ALKATEAK / ALCALDESA

IDAZKARIAK/EL SECRETARIO



KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA, BEHIN BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI

Gure ustez, Baztango alkateak aurkezturiko alegazioak konklusioak aldatzen ez dituzten argibideak dira.

Alkatea ohiak aurkezturiko alegazioek txostenaren paragrafo batzuk aldarazi dituzte, txostenak berak zehazturiko tokietan. Argibideak, berriz, alegazioen atalean erantsi ditugu.

Biei eskerrak ematen dizkiegu, eskaini diguten laguntza eta eginiko alegazioengatik.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Asunción Olaechea Estanga, lehendakaria
